

# GUaiXE.net



**Floren Nazabal Urrezko Koparen bila, bihar, Bilbon**



**Kirolak >> 11**

**Autokarabanendako aparkalekuak egitea erabaki du Altsasuko Udalak, Dantzalekuko lurrezko zelaian eta Zelai Txiki kalean**



**Sakanerria >> 7**



## Pikurock, gonbitea egina dago >> 15



**Baso-igel jauzkariarendako 26 etxe berri**

**>> 3**



**Domu Santu egunarekin, hilerriak biziz beteko dira**

**>> 5**



**Astelehenetik Altsasuko dendarien Azarokotea**

**>> 7**



**Aldaketa Ergoienako jaiotzen diru-laguntzan**

**>> 9**



**Igandean Patata Operazioa egingen da Sakanan**

**>> 5**



**Emakumeen Pala Txapelketa, gaurtik aurrera lehia**

**>> 11**

**Basogintza Sakanan liburua**

**ESKANTZA BEREZIA**

**12€**

**Bazkideek: 10€**

**>> 12**

**Foru plaza >> 14**

# ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu  
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

# LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumninioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: 948 468 559  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



**Arturo eta Enaitz**  
Zorionak bikote!!! Muxu pilla aitatxoi ta Enaitzi...bost! Bat ospatu diau ta guaño bestiat faltaa. Etxeko guzian partes, ongi pasa.

**Rakel, Oihan eta Xiberu**  
ZORIONAK Rakel eta Oihan ta ONGI ETORRI Xiberu Euskal Herrira!!!

**Ibai Galarza Zubiria**  
ZORIONAK prezioso zure 4. urtebetzean!!! Muxu asko etxekoan partez.

**Iñaki Gasco ZORIONAK!!** Gozatu zure 15 urtebetetzea koadrila eta etxekoe-kin!!!



**Alaia Goikoetxea**  
Bi eskuak osatu dituzu!! Ziztu bizian pasa dira hamar urte hauek eta hau aldaketa, e!! ZORIONAK potxola zure familia eta lagun guztien partez.

**Aloña Lizarraga Herrero**  
Biyer zui 3. urtebetetzea!! ZORIONAK pixpirita!! Muxu pilat ama eta aitan partez.

**Igarki Agirre Azkarate**  
ZORIONAK PELUKAS!! 3 urte beteko dituzu!! Muxu asko etxekoan partetik.



**Manoli**  
ESKER MILA beti hor zaudelako denok elkarrekin egoteko. Besarkada handi bat zure familia guztiaren partetik.



**Naiara Aierbe**  
ZORIONAK printzesa! Ondo pasa urtebetetze egunean eta zaindu Jon, Ane eta Jule. Muxu asko!



**Irune Cambero Lizarraga**  
ZORIONAK printzesa!! Muxu asko Nerea, aita, ama eta abueloen partez.

## azaroak

# 1-7

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net



### Musika

**Vesnianka.** Azaroaren 1ean, ostiralean, 19:00etan Etxarri Aranazko elizan.

**Pikurock: Hamlet, Def con dos, Gatibu, Linton Taun, Tximeleta, DJ Bull eta DJ Jota txo.** Azaroaren 2an, larunbatean, 20:30etik aurrera Irurtzungo kiroldegian.

### Antzerkia

**Kri kra Kro.** Azaroaren 3an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Teatro Paraiso eta Teatro Guimbarde.**

### Zinema

**El último concierto.** Azaroaren 1ean, ostiralean, 22:00etan eta azaroaren 3an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

### Hitzaldia

**Mugitzeko moduak, elikagaiak, eskaren prebentzioa.** Azaroaren 7an, ostegunean, 17:00etan Altsasuko Josefina Arregi klinikan. **Nafarroako Alzheimer Gaixoen Senideen Elkarte eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.**

### Erakusketak

**Altsasuko II. arte azoka.** Azaroaren 8ra arte, astegunetan, 18:30etik 21:00etara, ostiralean 11:00etatik 14:00etara eta domeketan 11:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

### Mendi irteera

**Urdalur-Hirumuga-Urdalur.** Azaroaren 1ean, ostiralean. Altsasuko Mendigoizaleak.

**Lizarrusti-Irurtzun** Azaroaren 3an, igande. **Irurtzungo Iratxo** elkarteko mendi taldea.

**Arzabal.** Azaroaren 3, domekan. Altsasuko Mendigoizaleak.

### Txirindula irteerak

**Santi Espiritu.** Azaroaren 3an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. **Burundako mendi bizikleta taldea.** 40 km.

### Tailerrak

**Sukaldaritza.** Azaroaren 1ean eta 2an, larunbatean eta domekan, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

### Bestelakoak

**Zorri azoka, merkatu soziala.** Azaroaren 1ean, ostiralean, 17:00etatik 21:00etara Etxarri Aranazko estalopean.

**Patata operazioa.** Azaroaren 3an, larunbatean, 9:30etik aurrera Urdiain eta Satrustegi artean jaki bilketa.

**Gertuko Bulego Parlamentaria.** Azaroaren 4an, astelehenean, 19:00etatik aurrera Altsasuko PSNren egoitzan.

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Azaroaren 1ean, ostiralean, 20:00etan, Irurtzungo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Azaroaren 3an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzeak.

**Sakanako Langabetuen Asanblada.** Azaroaren 4an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

**Euskaraz bizitzeari zigorrak ez!!** Azaroaren 4an, astelehenean, 20:00etan Altsasuko plazan. **EHEK** deitutako agerraldi masiboa.

107.3 FM  
**beleixe** online  
www.guaixe.net

Asteburuko agenda

Asteko errepasoa: albisteak, kirolak,  
baso igelendako balsak, Altsasuko Dendarien Elkarte...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Ostiraleko 9:30etik 10:30era **SAIOA**

*Pigtu irratia!*

Esataria: *Eneida*

## SAKANA

# Baso-igel jauzkariarendako 26 etxe berri gurean

Uda akaberan makinak Sakanako sei herrietako basoan sartu ziren. Lehendik ur tokiak ziren inguruak baltsa bihurtu zituzten. Lan horiekin Sakanan dauden hezeguneen dibertsitatea handitu nahi da. Horrela, gune heze horietako espezieen habitaten arteko lotura hobetu nahi da eta, bide batez, espezieenak.

Lan horiek egiterakoan bereziki baso-igel jauzkaria (*Rana dalmantina*) izan dute buruan. Baina beste anfibio espezie batzuk ere onuradun izanen dira: baso-igel gorria (*Rana temporaria*), zuhaitz-igel arrunta (*Hyla arborea*), ur-igel arrunta (*Rana ridibunda*), uhandre palmata (*Triturus helveticus*) edo zapoa (*Alytes obstetricans*).

Zenbait mariorraz eta txitxi-burruntzi espezieetarako intereseko ur tokiak ere izanen dira. Gainera, hainbat saguzar espezieerendako elikagai guneak izan daitezke. Bide batez, ihia edo txunka, menda eta heze-gunetara egokitutako landareak garatzeko balioko du.

## Zergatia

Nafarroan Ultzaman, Iruñerrian eta Sakanan besterik ez daude igel espezie horren populazioak. Hori dela eta, Nafarroan Mehatxatutako Espezieen katalogoan dago baso-igel jauzkaria; bere habitataren aldaketara sentibera den espezieztat jotzen da. Europako IV. Habitat zuzentarauak babes zorrotza behar duen espezieen artean sailkatu du. Sortu diren putzu edo



Urdiainen, Sanpedro aldeko bide ondoan, egindako baltsa. Euria egitean beteko da.

## Non

Arakil eta Altsasu bitartean baltsak non egin aztertu bada ere, azkenik sei herrietan egin dira: Lakuntzan 5, Arbizon 5, Etxarri Aranatzen 6, Bakaikun 1, Iturmendin 5 eta Urdiain 4.

baltsa horiekin, beraz, Sakanan baso-igel jauzkariaren ugalketa espazio potentzialak handitu nahi dira. Emaitzak izaten diren jakiteko aldika laginketa egingen da.

Azken urteetan hiru eskualdetan ur puntu berriak sortu dira. Baita Sakanan ere, Arbizon eta Altsasun: Sandindeikotik 2 km-ra egin zen baltsan eta Sietseko baltsan baso-igel jauzkaria ugaltzenari direla egiaztatu dute teknikariek.



Babestuta dagoen baso-igel jauzkaria.

## Finantzazioa

Lanak La Caixaren gizarte ekintzak finantzatu ditu, erakundeak Nafarroako Gobernuarekin duen eta urtero berritzen den hitzarmenaren bidez. 26 baltsak egiteko aurrekontua 55.838,83 eurokoa izan da (BEZ barne). Lanaren erre-

dakzioa eta zuzendaritza tekniko Gestión Ambiental de Navarra enpresaren ardura izan da. Proiektua egiterakoan Alberto Gosá adituaren laguntza izan dute. Gosá da Nafarroan aipatu igelaren jarraipenaz arduratzen dena. Lanak, azkenik, Aspacek egin ditu.

## &gt;&gt; Uharte Arakil

## Donejakue bidearen zantzuak Sakanan

Sakana igarotzen zuen Donejakueren bidea izan daitekeenaren bila ari dira Uharte Arakilen egiten dabilzan arkeologia indusketetan. Zantzu esanguratsuak aurkitu dituzte, IX-X. mendeen ingurukoak izan daitezkeen bidexkenak. Bide erromatarra Donejakue bide moduan erabiltzen hasi zirela uste dute ikertzaileek, goiztiar sartu baitzen kristautasuna Sakanara. Aztarnak ez bakarrik Uharte Arakilen, Sakanako beste herri batzuetan ere topatu dituzte. Arruazuko gurtzean esaterako, edo Lakuntzako pikotan edo zenbait idatzitan agertzen den zerga ordainketaren bidez. Ematen du garai haietan Errezubi izeneko zergaren bidez, zubiak egoera onean mantentzea lortzen zute-



Deialdiak sakandarren jakinmina piztu zuen. MAIALEN HUARTE ARANO

la eta hain zuzen, zubi horiek bidearen zatia dira.

Bidea berreskuratzea garrantzitsua izan daitekeela adierazi du Iker

Manterolak, Sakanako garapen agenteak, Zamartzen larunbatean egindako bisitan eta emandako azalpenetan: "Sakanako historia

berreskuratzeak aukera eman dezake eta zenbait interpretazio egiteko modua ere bai". Aroez zuzen bat ezagun egiteko ikertzea interesgarria izan daitekeela diote. Dena dela, boluntarioen laguntza ezinbestekoa dela azpimarratu dute, bai indusketa lanetan zein Donejakue bidearen nondik norakoak ezagutzeko zereginetan.

Oraingoz indusketa albo batean utziko dute heldu den urtera arte. Sentsazio onekin eman diote amaiera Zamartzen eta datorren urtean lanean segitzeko gogoz daude. Fran Valle de Tarazaga eta Emma Bonthorne izan dira indusketetan burubelarri aritu direnak. Bestalde, Iker Manterola ari da Donejakueren bideari buruz gehiago jakin nahian.

### Non erabili

## ETXARRI KOMERTZIALA

**ETXARRI ARANATZ**  
%10eko deskontua koltxoietan.

## ARKANGOA TABERNA

**ALTSASU**  
Postrea edo kopa doakoa.

## GIXANE ESTETIZISTA

**ALTSASU**  
Betileen permanentea eta tintarekin, atzazkalak zure erara margotu doan.

## PINPILINPAUSA

**ALTSASU**  
50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

## TEXARTU

**IRUNEA**  
Eskaintza kanpainaren arabera.

## CLINKER

**OLAZTI**  
Menuarekin kafea eta kopa doan.

## SORKUNDE HARATEGIA

**ALTSASU**  
50 €ko erosketetan etxeko produktoa doan.

## BERRIA EGUNKARIA

Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

## IKER KIROLAK

**ALTSASU**  
50 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

## URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA

**ETXARRI ARANATZ**  
%20ko deskontua kontsulatan.

## BASOMUTUR

**ALTSASU**  
Menuan %6ko deskontua.



Raf Atxuri

# Paganismoaren itzulera

astekoa

Olentzero kantuaren hitzek eta gurutzetako santuaren gorazarreko prozesioa programa ofizialetik atera izanak hauts printza batzuk harrotu dituzte Altsasun azkenaldian. Baita maizplazaratzen den ikamika berritu: sinistegabeko bizkor horiek zer dela-ta ospatzen dituzue San Joan, San Pedro, Santa Agata etb. einn? Zergatik ez zarete etxean

gelditzen? Zeren edo noren omenez horditzen zarete halako modu lotsagarrian?

Kontua da gogoeta hau pizten ari dela Europako bazterretan eta mota guztietako ezagutzak hedatu ahala azala eta mamia bereizten ari gara. Mamia, muina: naturaren zikloak oroitzea, bizinahia goratzea, jendartea elkartzea... Azala, itxura: bene-

tako edo balizko santu baten izenpean festa antolatzea.

Nire iritziz Erkuden amarena paganismoaz (eguzkia / euria) beteriko irudia da, oso indartsua. Antzekorik esanenezake Aitziberkoaz, Santa Agataz edo Jaundone Petriko (San Pedro) jaiaz. Bizi nahia edo naturaren indarra ospatzea da muina, santu edo amabirjina baten izena

gehitzea azala litzateke. San Joan festari Ekhigain edo Lizarberri dei geniezaioke, Santa Agatakoari Ernatzedei edo Hazihats.

Gizakiak betidanik izan du izpiritualtasuna lantzeko eta bizitzeko beharra, eta materialismoa puri-purian egonik ere izpiritualtasunak osagai berriak aurkituko ditu beti, kristautau-

sun, islamismo, paganismo, budismotik nahiz ateismotik ere. Izan ere, geure barrura (natura eta giza harremanak barne) begiratzea eta funtsezko galderak eraikitzea bizigarria dugu ezinbestean. Erantzunik (Dylan halaxe mintzo) haizearen ibilian daude, ez dugu ba lantegi makala horietako batzuk aurkitzen!

## hara zer dien

### Familia, teknologia berriak, eta pantailak

Pantailak eta teknologia berriak gure eguneroko famili bizitzaren zati dira dagoeneko. Baina... onak ala txarrak dira?

Beste mila gauzekin gertatzen den bezala, ezin dugu esan onak edo txarrak direnik, erantzuna, baliabide hauei ematen diegun erabileran aurkitu dezakegunako. Egitea dugun erabileraren arabera, emaitza positiboak lor ditzakegu edota arriskuak ere topo egin dezakegu. Labana bat ona edo txarra dela esan dezakegu? Hor duzue argitzeko adibide bat.

Familiei tokatzen zaigu, batez ere gure seme-alabak txikiak direne-

tik, teknologia berrien inguruan hezitzea. Zenbat erabil ditzaketen, zein momentutan, nola, zein lekutan ezarri daitezke... Gurasoak dira, beraz, funtsezko eginkizun nagusia daukatenak, ahal den neurrian erabilera egokien zein den erakusteko momentuan. Puntu honetan limiteak, arauak... sartzen dira jokoan guraso seme-alabekin. Helburua, arriskuak gutxiteztea izango da eta bide batez atzera dezaketen gauza positibo gehienak erakustea. Beraiekin.

Hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Drogomenpekotasun Prebentzio Programetatik gai hau gurasoekin tailerren bidez lan-

tzen dugu. Bertan gurasoek teknologia berriak ezagutzeko aukera dute eta helburuak jakin, babestu eta hezi dira.

Lehenik eta behin, pantailak zein abantaila eskaintzen dituzten eta zein arrisku dakarten jakin nahi dugu; bigarrenetik, gurasoak bultzatu nahi ditugu, mota horretako baliabideen erabilera desegokiak sortzen dituen arriskuetatik familia babesteko arauak ezartzera: babestu; eta, azkenik, ikus-entzunezko baliabideen eta komunikazioko teknologia berrien erabilera arduratsua sustatzen duten ohiturak sortzen lagundu nahi dugu: hezi.

#### Ideiak:

- **Ezagutzeko:** Gurasoa bazara eta teknologia berrietan ez bazara trebe, zergatik ez galdetu zure semeari nola egiten den? Beraiekin denbora pasatzeaz gain, dohain, baliabidea ezagutzeko aukera ematen dizu.

Gizarte Zerbitzuek eskaintzen dituzten tailerretara joateko aukera ere badago.

- **Babesteko:** babes arauak jartzea oso garrantzitsua da, hauek familien ezaugarrien arabera sortuko direlarik. Arau hauek seme-alabekin negoziatzea egokia da, beren iritzia kontutan hartu dugula ikustea garrantzi-

tsua baita beraiatzat.

Orduak finkatu: Egunean edo astean zenbat orduz erabili daitzekoen. Lekua: kontutan izatea non dauden kokatuak. Adibidez, ordenagailua egongelan jartzea gomendagarria da.

- **Heztek:** Teknologia berrien kontsumo autonomo eta arduratsua bulkatzea ditugun tresnari onenak hauek izan daitezke: gure seme-alaben aurrean gure gure eredua izatea, beraiekin arauak negoziatzea eta arrazoitzea eta hauekin elkarrizketa sustatzea.

Hausnarketa moduan pentsatzen jarraitzea ea zenbat teknologia berri erabili genituen atzo (mugikorra, ordenagailua...), Gu gara gure seme-alaben eredu, beraz, arauak ere guretzat ere jarri beharko genituzke, ezta?

**Prebentzio programako teknikariak**

## gutunak

Atal honetan ahalik eta irizirik gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egiten dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkariaren adierazitako esanetan eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

## Sakanako euskara zerbitzuari

Izaskun Lobo Zubizarreta

“Kasu honetan, Larunblai eta Iska haur eta gazteen artean euskararen erabilera bultzatzeko helburuarekin sortutako jarduerak dira. Haurren eta gazteen artean euskarazko harreman-sareak sortu eta indartu nahi dira, euskara haien komunikazio hizkuntza izan dadin.”

Eta horrek izan behar du helburua. Programa hauetan egonda, haurren batek ez badu euskaraz hitzegiten, gurasoekin hitz

egin eta behar diren neurriak hartu, mesedez. Gure hizkuntza bost axola zaien gurasoek ez dituzte euren haurrak horrelako ekintzetara apuntatzen eta hori hauraren euskara mailan ere sumatu egiten da. Baina ezin zaio alde zurreretik ume bati aterik itxi, heldu bat ez delako.

Bestalde, Nafarroako hainbat egunkari albiste hau beren ikuspuntu pertsonala adierazteko erabili dutela iruditu zait eta gogorazi nahiko nieke albisteak gertakizun bati buruz informatzeko direla eta ez hauek manipulatzeko.

Eta amaitzeko, berriro diot, elkartu gaitezkeen helburu hori

aurrera eraman eta euskararen alde egiteko!

## Sexu eta ugalketa eskubideak

Oihana Lopez Goñi, Etxarriko Emakume Batzordea

Sexu eta ugalketa osasunari eta haurdunaldia borondatez etetea ari buruzko legeak 3 urteko bete ditu. Emakumezkoen eskubideen babesa bermatzeko bere eraginkortasuna aztertu daitezke. Nahiko zabala den legea planteatzen da. Bertan, abortua despenalizatzeaz gain, sexu eta ugalketa

osasuna deritzona ere aipatzen baita. Hori aurrerapausu garrantzitsua da. Haurdunaldia borondatezko etetea 14. aste bitarte inolako arrazoirik gabe ahalbideetuz du.

Hala ere alderdi negatiboa da oraingorako abortuaren figura Zigor Kodearen barnean sartuta dagoela emakumezkoen borondatez, eta epeetatik eta kasuetatik kanpo egiten denean. Praktikan iruzur ikaragarria izan da, gabezia handiak baitaude: hezkuntza politikan, nahi gabeko haurdunaldiei buruzko sentsibilizazio neurrietan, gazteei zuzendutako sexu hezkuntza programa eskasak...

Adibide mingarria da Etxarriko Emakumearen Arreta Zentroa. Sexu hezitzailearen lanaldia erdirajaita da. 90. hamarkadatik hona Nafarroan sexu hezkuntza atzerapausu ikaragarriak pairatzen ari gara. Egun eskubideen murrizketa, zerbitzu publikoaren pribatizazioa eta gizarte politika publikoaren deuseztatzea gertatzen ari den egoera orokorrean, sexu eta ugalketa eskubideetan ere atzera pausuak ematen ari dira beharrak asebetetzen ez dituzten eta emakumezkoen bizi-baldintzetan atzerapausuak ekarri dituzten politikak martxan jarrit.

Kezkatuta gaude uste dugulako eskubide eta bermeak ez direla soilik Etxarriko Osasun etxera murrizten; horrek jendarte osoan du eragina. Horregatik parekidetasunerako bidean lanean jarraitu nahi dugu!

Osorik [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

## Guaixe

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • [guaixe@guaixe.net](mailto:guaixe@guaixe.net)  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa  
**MAKETATZAILEA:** Ainhoa Etxebarria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • [publizitatea@guaixe.net](mailto:publizitatea@guaixe.net)  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • [publi@guaixe.net](mailto:publi@guaixe.net)  
**ERREDAKZIO LAGUNTAILEAK:** Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano  
**ZUZENTZAILEA:** Maria Luisa Zelaia Mendia  
**ARGITARATZAILEA:** Bierrrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • [bierrrik@guaixe.net](mailto:bierrrik@guaixe.net)  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • [argi@guaixe.net](mailto:argi@guaixe.net)

**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea  
**Lege gordailua:** NA-633/1995

## LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
 s a k a n a



&gt;&gt; Etxarri Aranatz

## Azoka multidisziplinarra, Zorri Azoka

**Gaur, 17:00etatik 21:00etara etxe handiko estalpean**

Agorrilean hasitako ibilbideari eusten dio Zorri Azokak, merkatu sozialak. Laugarren aldiz, Sakanako ekoizle, artisau eta artistak bilduko dira eta euren mahaietan haien ekoizpenak izanen dira salgai, esaterako: fruituak, barazki ekologikoak, arropa, bitxikeriak,

bertako produktuak, margolanak... Azokarekin batera, sortzaile edo talderen baten ekarpena ere izanen da.

Bere osotaunean hartuta, azokaren helburua da bertako produktuak bultzatzea, hala Sakanako ekonomia sustatzeko. Aldi berean, Ibarrean kalitatezko produktuak daudela azaleratu nahi dute. Gero

### Trukea

Mahai pare bat jarriko dira eta 19:00etatik 20:00etara jendeak nahi duena (arropa, objektuak, liburuak...) eraman eta trukatzeko aukera izanen du.

eta gehiago dira azokak hartzen dituen bisitariak.



Zorri azokan denetatik eros daiteke.

SAKANA



Alegria de Iruña-koek egingen dute patata eta dohaintzen bilketa.

## Patata Operazioa igandean

Alegria de Iruña peñako kideak igandean Sakanako makina bat herri pasako dituzte. Patata Operazioaren 51. edizioa izanen da. Iruindarrek haien ibilgailuen bozina joz iragarriko dute herrian dela Patata Operazioa. Aski izanen da hori berriro ere sakandarrek eskuzabaltasuna agerian uzteko. Peñako kideek patatekin batera,

babarrunak, kalabazak eta beste jakiak bilduko dituzte. Guztiak Hermanitas de los Pobres etxeari emanen dizkiote.

Bilketa 9:30ak aldera hasiko dute Iturmendin. Handik Urdiainera joko dute. Bakaiku eta Etxarri Aranatz izanen dira hurrengogeltokiak. Iruindarrak Etxarringosaldu ondoren lanari ekinen diote eta Satrus-

tegi bitartean herriz herri, urteroko bisita egingen dute.

Garai batean Alegria de Iruña-ko kideek bi ibilbide egiten zituzten patatak biltzeko: Sakanako eta Artzibar eta Erroibarkoa. Azken hori egiten zutenekin adinagatik utzi dute eta ez zen erreleborik izan eta Sakanako ibilbideari eusten diote bakarrik.

&gt;&gt;

## Ibarreko basogintza ulertzeko liburuaren eskaintza

**Bierrik fundazioaren Altsasuko bulegoan 12 eurotan eskuratu daiteke; bazkideek 10 eurotan**

Basogintza Sakanan (2003) Maria Flores urdiaindarrak idatzitako liburuak basogintzak Sakanan zuen garrantziaren berri ematen du. Alde horretatik dibulgazio lana da. Bost atal ditu liburuak.

Lehena, ibarra osatzen duten herrien eta Sakanak erabili izan dituen baso eta mendien azalpena ematea; bigarrenik, Sakanako landaretza eta zuhaitzia kokatzea; hirugarrenik, basoak historian izan duen bilakaera aztertzea; laugarrenik, basoan egiten ziren lanak aztertzea, hau

da, egurraren ateratzea eta haren erabilpen ezberdinak aztertu; bosgarrenik, basoarekin erlazionatutako ipuin eta mitoen aipamena egin.

Lau elkarrizketa ere jaso dira liburuan, basogintzaren lanbidearen atala osatzen dutenak: Ambrosio Erdozia, Gabriel

Andueza, Genaro Paniagua eta Miguel Andres Galarzari eginak. Erabilitako hitzen hiztegi txo batekin, eta erabilitako bibliografiarekin osatzen da liburuak. Bierrik fundazioak koordinazio lanak egin zituen eta Nafarroako Gobernuak argitaratu zuten.



Maria Flores, liburu aurkezterakoan.

&gt;&gt;

## Hilerrietako urteroko bisita

**Kanposantuak beteko dira**

Egunotan ezohiko mugimendua egon da hilerrietan. Biharko eguna prestatzeko asko eta asko izan dira garbiketako tresnekin joan direnak kanposantuetara. Hilo-biak, hilarriak, panteoiak, nitxoak, kolunbarioak eta beste garbi eta txukun utzi dituzte. Lore zimelduak kendu eta lore freskoak jarri. Kolorez beteko dira hilerriak.

Izan ere bihar, joan zaizkigunei bisita egiteko eguna da, Domu Santu eguna. Kanpo santuetan jendearen joan-etorri handia espero da. Batzuk erositako loreak eramanen dituzte, baratzean egunerako propiolandutakoak besteak. Jakina, egunari lotuta elizkizunak izango dira gure herrietan.

Badago, hala ere, egun honi kritika egiten dionik. "Urte gehienera ia ahaztuta egon ondoren, badi-rudi soilik egun honetan gogora



Hilerriak lorez beteko dira.

tzen garelako hilerria txukuntzearekin" diote batzuk. Beste askori, egun horretarako loreak erostearrekin egiten den gastua gehiegizkoa iruditzen zaie. Aldiz, egunotan hilerriak bisitatzen dituzten askoripolita iruditzen zaie hilerriak beteta eta txukun egotea. Gustu guttitako iritziak.

&gt;&gt; Altsasu

## EHEko bi kideri etxeko atxilo-aldia

**Astelehenean, 20:00etan, sakandarrak agerraldi masibo batean parte hartzera deitu dituzte**


Azaroaren 23an eta 24an Euskal Herrian Euskaraz (EHE) eragileko bi kidek etxeko lokalizazio iraunkorra bete beharko dute. Horren berri astelehenean emanen dute, baina sakandarrak prentsaurreko horretan parte hartzera deitu dituzte. Zigor horrez aparte, EHEko bi kideek aurretik 6.000 euroko isuna ordaindu zuten. Hizkuntza paisaia euskalduna aldarrikatzeko 2011ko azaroan kalera atera zen EHE. Bi kide identifikatuak izan ziren eta 16 seinale ezabatzeko leporatu zieten. Joan zen urteko irailean egindako epaiketan bi seinaleren garbiketa kostuak ordaintzea eta bi eguneko lokalizazio iraunkorreko zigorra jarri zieten.



Hizkuntza paisaia euskalduna aldarrikatzeko ekitaldian identifikatu zituzten.

## &gt;&gt; Irurtzun

## Igerilekuko hobekuntza lanak despedituta



Irurtzango igerilekuak.

Irurtzundarrrek aurrekontu parte-hartzaileen bidez igerilekuetan hobekuntza lanak egitea erabaki zuten aurten. Lanek 25.000 euro inguruko aurrekontua izan dute.

Eskaera betez udalak kirol azpiegituran, besteak beste, honako lanak egin ditu: txikien eta igerileku ertaina ondoan mugikortasun arazoak dituzten pertsonendako koma egokitu da; aldagelak iragazgaiztu eta itu-

rriak aldatu; goiko merenderora joateko eskailerak egin dira; mugikortasun eskasa duten pertsonendako beheko merenderora joateko pareta egokitu da; tabernako terraza berria, aldagelak iragazgaizteko; tabernako sukaldia egokitu eta merenderoko itzalgunea handitu da. Heldu den urterako merenderoan eta terrazan altzari gehiago jartzea aurrekusi du udalak.

Aurrekontu parte-hartzaileen bidez joan den urtean Irurtzango Udalak Bi Aizpetako bidexka konpundu zuen eta Espaloiei errespetua. Seinaleei errespetua proiektua garatu zuen. Aldi berean, diru inbertsio handirik eskatzen ez zutenez eta bideragarritasuna zutelako, aurreko urteko parte-hartze prozesuaren bidez jasotako beste proposamen batzuk ere gauzatu ditu udalak.

## &gt;&gt; Lakuntza

## Festetatik festetara plaza obretan

Lakuntzako plaza hala egonen dela jakinarazi digu Jose Ramon Garin alkateak. Eraikuntza enpresek azaroaren 8ra arteko epea dute haien eskaintzak aurkezteko. Haien arteko egokiena aukeratu ondoren, enpresako langileak San Saastin festen ondoren hasiko lirateke lanean. Enpresak zazpi hilabete izanen ditu lanak despeditzeko, agorrileko aurreneko asterako eginak egon beharko dute. Lanen aurrekontua

343.905,47 eurokoa da (BEZ kanpo).

Alkateak azaldu digunez, ziuurrik dauden zuhaitzak aldatuko dituzte. Teknikariek udalari jakinarazi diotenez, arbolak gaixo daude. Gainera, zain handiak dituzte eta haiek plazako zorua hautsi dutela adierazi digu alkateak.

**Diseinu parte-hartzailea**

Plaza eraberritzeko parte-hartze dinamika martxan jarri zuen



San Saastin festen ondoren hasiko dira plaza berritzeko lanak.

Lakuntzako Udalak 2010eko lastailan. Prozesuan zehar jaso ziren ideiak udal arkitektoari pasa zizkieten. Hark bi proposamen egin

zitu, marrazkietan jasoak, eta lakuntzarrek zenbait bileretan iritzia emateko aukera izan zuten, haurrak barne.

## SAKANA

## Errepideetako zola konpontzeko hiru milioi euro

Sustapen Departamentuak errepideak konpontzeko eman dituen 9 milioi euroetatik 2.990.000 bideratu ditu Irurtzango Errepideen Kontserbazio Zentrorako. Diru hori errepideen konponketa egitera bideratuko da. Izan ere, aurreko neguko eurite eta elurte handiek kalte handiak sortu zituzten eta horiek konponduko dira orain.

Irurtzango Kontserbazio Zentroak 1.787.000 euro izanen ditu errepideak konpontzeko. Leitzalde, Larraun, Basaburuako eta Goñerriko errepideekin batera, Irurtzun-Madotz-Lekunberri (NA-7500) errepidea dago. Horretaz aparte, 1.203.000 euro bideratuko dira hiru autobietako akatsak kon-

## Gipuzkoan ibilgailu arinek ez dute bidesaririk ordaindu beharko



Errepideen mantenuan zuloa du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horregatik, bide nagusietan bidesariak jartzea aztertzen ari da. Bide Azpiegiturako diputatu Larraitz Ugartek azaldu duenez, hasierako ideia aldatu eta bidesaria bakarrik ibilgailu astunei kobratzea proposatuko du, "azken batean, errepidea gehien hondatzen dutenak direlako". Batzar Nagusietan gainontzeko alderdiekin akordioa lortzea espero du. Aurrera egingen balu kamioiek A-1 eta A-15ean bidesaria ordaindu beharko lukete.

pontzeko: Iparraldekoa (A-1), bi norabideetan; Leitzarango Autobia (A-15) eta Sakanako Autobia (A-10). Gainera, Iruñeko Kontserbazio Zentroaren bidez Asterain-Irurtzun (NA-7010) errepidean ere konponketak egingen dira.

**Lanak**

Toki batzuetan errepide zati batzuk fresatu egingen dira, gutxienez 5 cm-ko lodieran, eta han zoru berria jarriko da, bideko markak margotzearekin batera. Beste kasu batzuetan, errepidearen arora, zoru berria zabalduko da. Halakotetan zoru markak berriro margotuko dira. Lanak urte eta erdiz luzatuko dira.

## barrutik kanpora

## Gutun soziala

Gaurko idatzia propaganda egiteko erabili nahi dugu. Ez pentsatu merkatuaren hatzaparretan erori garela eta publizitatearen bitartez edozein gauza saltzeko bidean jarri garenik. Ezta gutxiago ere. Etorkizunaz hitzgingo dugu gaurkoan, euskal herritarren eskubideetaz alegia ez baitago etorkizunik esku-bide sozialik gabe.

Bide honetan hainbat mugimendu sozial eta sindikal Euskal Herriko gutun soziala lantzen hari gara. Zergatiak laburbilduz hau esan genezake. Gaur egun gure herriak ez du bizi duinerako eskubiderik eta bizimodu duin hori zor zaio. Ez dugu errepikatuko egoera honetara zeintzuk ekarri gaituzten zeren ordua da gure aldarrikapen sentituenak batzeko eta fronte komun bat martxan jartzeko aurrera egiteko.

Euskal herriko gutun sozialak oinarri sendoak ditu, bere hastapenean kolektibo eta pertsona ugarik hartu dute parte baina argi geratu behar da gutuna guztion artean eratu beharreko zerbait dela. Horretarako hurrengo hila-beteetan prozesu bat bideratuko da non guztion partehartzea bermatuko duena. Abianek bat egin du prozesu honekin eta honen berri eman nahi genuen. Guztion ekarpenak ezinbestekoak dira zeren eta eskubideak guztioi dagozkigu eta lan horretan buru belarri murgilduko gara. Hemendik eta Abenduaren 14a bitartean gutunaren hitzaurrea eta printzipioak izango ditugu eztabaida gai. Honako web orrian orain arte egindako zirriborroak aurkituko ditzakezue: [www.eskubidesozialenkarta.com](http://www.eskubidesozialenkarta.com).

Gure ustez gutun sozialak etorkizuneko euskal herria eraikitzeke oinarriak jartzen ditu eta horrek indarberritzen gaitu.

**Abian plataforma**

## MOTZEAN

## Alfabetatze digital ikastaro aurreratua Etxarrin

Azaroaren 4, 6, 11, 13, 18, 20, 25 eta 27 eta abenduaren 2 eta 4, 10:30etik 12:30era

Cederna-Garalurrek antolatuta astelehenean alfabetatze digitaleko ikastaro aurreratua hasiko da kultur etxean. Ikastaroa langabezian dauden, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologietan (IKT) prestakuntzarik ez duten pertsonendako da. Parte-hartzaileek

Windows ingurunea lantzeko: word

programaren bidez curriculum bat nolalandu ikasiko dute. Horrekin batera, posta elektronikoren erabilera, curriculumabidiala hartzeko. Azkenik, enplegu-atarien berri jasoko dute, enplegua aurkitzeko informazioa bilatzeko tresnak baitira.

**Argibideak**

948567010, [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es) edo [info@cederna.es](mailto:info@cederna.es)

**Sagrado Corazon ikastetxe jasangarria izateko prestatzen**

Ikastetxeko curriculumean inguru-

men praktikak txertatu eta ikastetxearen kudeaketan energia aurrerzte eta eraginkortasun irizpideak gehitzeko asmoz, Sagrado Corazon ikastetxea Eskola Jasangarriak ekimenean parte hartzen ari da. Bere hezkuntza komunitate guztia ari da horretan parte hartzen: irakasle, ikasle, familiak eta ikastetxeko langileak.

Hezkuntza Departamentuak tailerren bidez irakasleak trebatu egingen ditu eta bestelako jarduerak izanen dira ikasleei zuzenduta. Bestalde, Ingurumen Baliabideen Nafarroako Zentroak ingurumen proiektuetan aholkularitza eta bul-tzada emanen dio ikastetxeari.

Sagrado Corazonen konposta egingen eta argindarra sortzen eskarmentua badute aurretik.

**Otsagabia-Lakuntza bikotea omendua**

Aurten urrezko ezteiak ospatu dituzten Rural Kutxako Solera klubeko 150 senar-emazte omenaldia jaso zuten astelehenean Iruñean izandako ekitaldian. Horien artean zeuden Maria Soledad Otsagabia eta Juan Javier Lakuntza. Programaren barruan, katedraleko elizkizuna, Yolanda Barcina lehendakariaren harrera, Concertante hari-laukotearen musika eta bazkaria zeuden.



Altsasu

**Astelehenerdik hilaren 30ra Altsasuko Dendarien Elkarteko dendaren batean erosten duenak guztira 4.000 euroko balioa duten bost saskiren zozketarako txartelak jasoko ditu**

Denda txikien irabaziak %30-40 artean jaitsi dira. Kanpaina enpleguari eusteko pizgarria izan nahi du

Haien dendetako produktuak: teknologia berriak, elikagaiak, bidaiak eta hainbat sorpresa dituzten bost saski. Guztira 4.000 euro zozketatuko ditu Altsasuko Dendarien Elkarteak (ADE) abenduaren 4an. Zozketan parte hartzeko azaroan ADEko dendaren batean erosketara egitea besterik ez dago, horren truke zozketarako txartela jasoko dute. "Azarokotea ahalegina da. Ez gehiago saltzeko, lanean segitzeko, dendako atea zabalik mantentzeko baizik". Halaxe azaldu dute kanpaina aurkezpenean izan diren Yoli Fernandez de Garaialde Lazkanok (Txikitxo), Alberto Angiano (Txartel), Miren Ainhoa Alvarez (Optika Sakana), Ibone Prietok (La Cigüeña) eta Estibalez Asensio (Asensio).

Alvarezek adierazi du ekonomia krisia gogor jotzen ari dela dendak: "salmentak ikaragarri

# Hemen da Azarokotea



Altsasuko Dendarien Elkarteko ordezkariak aurkeztu zuten Azarokotea.

murriztu dira. %30 eta 40 artean. Denden ataria zabalik mantentzeko jendea aurrezkiatit tiratzen ari da, krisia noiz pasako zain. Beste batzuk itxi egin dute". Horregatik, Alvarezek azaroa, Altsasurendako eta Sakanarendako onazitea espero du.

Elkarteko buru Alberto Angiano dei egin du azalera handiko merkatal gunea baztertzera: "gauza bera eta hobe dute Altsasun. Pertsonalizatutako arreta eskaintzen dugu, lagundu, gomen-

datu eta aholkatu egiten dugu; produktuak aldatzeko arazorik ez dago eta erraztasunak ematen ahalegintzen gara". Alvarezek ikerketa baten datuak eman ditu: merkataritza txikian azalera handietan baino lau aldiz handiago dela enplegua; eta kontratuen egonkortasuna eta soldata hobekak direla.

**Elkarlanerako deia**

Gaur egun 30 establezimendu osatzen dute ADE, duela urte bat

baino zazpi gutxiago. Batzuk itxi eta besteek baja eman dute, azaldu digute. Hala ere, elkartuta indar gehiago dutela sinisten dute ADEn; horregatik, dei egin diete Altsasuko dendei elkarteko kide egiteko: "eskualdeko merkataritza ari diren dendak elkartzea inoiz baino garrantzitsuagoa da gaur egun, ekintza eraginkorrak eta adierazgarriak egin ahal izateko".

Gaur egun Altsasuko dendak biltzen badituzte ere, Sakanako dendak bazkide egitea begi onez

**Kideak**

Arkatx liburu-denda, Asensio moda, Bar Il Padrino, Botique Ekin, Carnicería JJ Aldasoro, Deportes Lezea, Electricidad Ramos, Frutería Cristina, Gorosti Decoración, Iker Kiroiak, Izara, Joselen moda, La Cigüeña, Larka emakumea-gizona, Lasakiroiak, Mari Carmen, Marigorri Lencería, ML moda hombre, ML moda mujer, Muebles Santa Cruz, Óptica Navarra, Optika Sakana, Relojería Joyería Norte, Sare calzados y bolsos, Tu Tienda Especial, Txartel kopia, Txikitxo eta Xagu informatika.

ikusiko lukete: "izena aldatzeko prest gaude". Zenbat eta gehiago izan orduan eta indartsuago izanen direla azaldu dute. "Horrela kontsumoaren deslokalizazioari bizkorrago aurre egingen diogu".

Elkarri laguntze horretan Facebook-en profila sortu dute (Comercio y empresas de Sakana) 521 kide dituenak. Han Ibarreko denda eta enpresen berri ematen da. Herrietako kontsumoa bulkatzea du helburu. Horretaz eta Azarokoteaz gainera, aurten udaberrian stock azoka eta udan komertzio eguna antolatu zuten ADEk.

Autokarabanendako bi gune egokituko ditu udalak

**Dantzalekuko lurreko futbol zelaian eta Zelai txiki kalean, kiroldegi ondoan**

Altsasuko Udalak 22 autokarabanendako aparkalekua egingen du Dantzalekuko lurreko futbol zelaian. Haren mendebaldean 1.500 metro karratu egokitu nahi ditu udalak. Horretarako zorua berri-eta ibilgailuendako ur eta argindar hartuneak jarriko dira. Aldi berean autokarabanen ur beltzak jasotzeko azpiegitura jarriko du udalak. Horrekin batera, sarreran hesi mugikorra eta inguru guztian itxitura jarriko da.

Behin-behinean alkate postuan dagoen Juan Carlos Orellanak azaldu zuenez, lan horiek aurreneko fase bat izanen dira eta etorkizunean zabaltzeko aukera izanen da. Autokarabanendako erabiltzen ez den zatia aparkaleku gisa egokituko da. Lanak udalaren soberakineko 50.000 euroekin finantzatu dira, eta haiek udaleko lan brigadak eta aldi baterako kontratatutako langileak egingen dituzte. Behin lanak despeditu ondoren Atabo udal elkarteak kudeatuko lituzke aparkalekuak.

Bestalde, Altsasuko Udalaren asmoa da Zelai txiki kalean hiruzpalau autokarabanendako plazak erreserbatzea, kiroldegi ondoan. Hauek beste erabiltzaile mota batendako izanen direla azaldu zuen Unai Hualdek. Zinegotzi berak alkateari eskatu zion biere-

muen erabilera ordenantza eta proiektua egiterakoan autokarabana elkarteetako kide diren altsasuarrekin elkarlanean aritzeko.

**Aisialdi natur gunea**

Turismoaren bidez, bere erakargarriak baliatuz, Altsasu potentziatzeko modua ikusi du aparkalekuan Asun Fernandez de Garaialde Lazkanok. "Beste batzuk kontrakoa esaten badute ere, honek erakusten du udalak inbertsioak egiten dituela, gainera, lanak egiteko zuzeneko kontratazioak eginez, baldintza onetan kontratatuz".

Galde-erreguen tartean Jose Angel Agirrebengoak gogora ekarri zuen bazela urte bat basoaren



Autokarabanak, Zelandi kiroldegiko inguruneetan aparkatuta.

ordenazio plana bideratu zela. Hanjaso zegoen Usolarrain, Dantzaleku eta San Pedro inguruan aisialdi natur gune izendatzea.

Agirrebengoak adierazi zuen izendapen horrek erakargarritasuna ekarriko lukeela eta Nafarroako Gobernuari eskaera hori berriro

**Kontratazioak**

Urtea despeditu bitartean Altsasuko Udalak kisugil bat eta garbiketa lanetan aritzeko bi langile kontratatuko ditu. Mendian markatzeko beste bi kontratazio egingen dira. Horiei Zelandi eskolako itxitura eta teilatuko lanak egiteko kontratatutako hiruak gehitu behar zaizkie. Azken lan horiek eginak, heldu den asteen hasiko dira itxiturekin.

egiteko eskatu zuen. Udalak inguruan egindako inbertsioak gogora ekarri eta gobernu laguntzak lortzeko aukera aipatu zituen.

Azaroak 12an eta 16an LANCÔME-ko makillatzailea. Eskatu zure txanda!

LANCÔME PARIS  
948 562 452 ALTSASU

xapatero taberna  
948 460 162  
Etxarri-Aranatz

Igoa arraindegia  
948 460 111 · Arkuetobide kalea · Etxarri Aranatz

>> **Olatzagutia**

# Porlandegian 15 hilerako espedientea indarrean jarriko da

Asteartean sinatuzuten Cementos Portland Valderrivasek eta CCO-Ok, UGTk, USOk eta independenteeke taldeko sei porlandegietan Kontratuak aldi baterako eteteko onartutako Enplegu Erregulazio Espedientea (EEE). Aurretik langileek berretsi egin zuten. ELAk ez zuen sinatu eta ordezkariak proportzioagatik CGT ez zen izan.

EEEn jaso denez, langileak gehienez ere 180 egun egonen dira lan egingabe azaroa eta 2014ko urte akabera bitartean. Ekoizpen beharren arabera aplikatuko da EEE. Cementos Portland Valderrivasek salmenten jaitsieragatik hartu ditu neurri horiek. Olatzagutiko porlandegiko ekoizpen aurreikuspenak 300.000 tona dira, aurreko urtean baino 50.000 gutxiago. Aurtengo aurreneko 8 hilabeteetan zementu kontsumoa %23 jaitsi dela ere adierazi dute.

Adostutakoaren arabera 105 langileen soldata bi aldagarriren artean aterako da: langabeziatik jasoko luketen sari gordinaren eta soldatarbiaren arteko aldea. Estren



Olatziko Cementos Portland Valderrivasen EEE aplikatuko dute.

%80 jasokodute. Opor egunak errepetatuko dira. Aurten despeditzen da porlandegiko lan hitzarmena heldu den urtean indarrean izanena da. Eta ultraaktibitatearekin 2015era luzatuko du indarraldia.

Enpresa batzordeko buru Javier Lekunberrik prentsari egindako adierazpenetan esan du azken puntu hori "funtsezkoa" dela, "espedientea indarrean dagoen bitartean soldata ez delako murriztuko eta lanordua ez direlako moldatuko". CPVk halakorik proposatzuz gero jarraipen batzordean aztertu beharko lirate-

**46**

Irailarekin batera 15 kaleratu izan dira porlandegian. Beste hiruk lan bat despeditu arte jarraituko dute. Joan den urte akaberan, berriz, 28.

keela gaineratu du. Lortu zitekeen akordiorik onena dela adierazi du Lekunberrik. UGTkoki dearen itxaropena da espedientearekin ekoizpen jaitsiera garaia pasatzea, kaleratze gehiago ez izateko.

**MOTZEAN**

## Sozioekonomia eta errepresioa, gazteen kezka nagusiak

Hala jasotzen du Altsasuko Ernaik egindako diagnostikoak

Altsasuko Ernaik 15 urtetik 26 urte bitarteko gazteen kezken inguruko diagnostikoa egin du. Horretarako, ideia ezberdinak dituzten eta giro ezberdinean mugitzendiren hainbat gazteen iritzia jasotzen du. Inkestareta bete dutenen %70,8 emakumeak dira, eta %29,2 gizonezkoak.

Diagnosi horren arabera, Altsasuko gazteriaren kezka nagusia sozioekonomia da (%77). Haren atzetik dago errepresioa. Gazteei kezka sortzen dizkieten beste gaiak ondoak dira: gazteriaren pasibotasuna, euskararen erabilera eskasa, hezkuntza sistema, etxebizitza, droga kontsumoa, emakumeen egoera, ekologia eta abar.

Aipatu ekarpenekin 2013-2014 ikasturterako plangintza osatu du Altsasuko Ernaik eta eragile ezberdinekin elkarlanean jarduteko konpromisoa hartu dute. "Altsasun bizi eredu berriak eraikitzea eta askatasunean bizitzea dugu oinarri, eta, gogotsu, guztion artean lortuko dugula uste dugu" dio Ernaik, gazte guztiei lanean segitzeko deia eginez.

## Ostiralen zain



Astegun hori noiz iritsiko eta epaileek zein erabaki hartuko duten zain geldituko dira 197/2006 doktrina ezarria duten presoak eta haien senideak. Espainiako Auzitegi Nazionaleko zigor salako 16 epaileek azaroaren 8tik aurrera, ostiralero, doktrina ezarri zaien eta libre gelditzea eskatu duten preso kasuak aztertuko dituzte, banan-banan.

Fiskaltzari preso bakoitzari buruz duen iritzia eskatu diote epaileek. Estrasburgoko auzitegiak doktrina baliogabetezko emandako ebazpenean jaso denez, epaia egoera berean dauden preso guztiei aplikatu behar zaie. Halaxe ondorioztatu du ere Espainiako Auzitegi Nazionalek. Doktrina 60 euskal herritarrei aplikatu zitzaizkien. Haietako 22ren helegiteak Espainiako Auzitegi Konstituzionalean daude, eta 6 Auzitegi Gorenean. Preso horien artean Jesus Mari Mendinueta Flores, Bautista Barandalla Iriarte eta Unai Parot Navarro daude. Mendinueta kasua Konstituzionalean dago.

## Berriaren mendizale zauritua erreskatatu zuten

Larrialdi zerbitzuek jakin zuten aurreko ostiralean, 10:35 aldera, mendizale bat zauritua zegoela Berriango Iherbainen. 3 metroko altueratik erori eta gerrialdean min hartuta zegoen 45 urteko mendizale gipuzkoarra. Harekin beste mendizale bat zegoen. Nafarroako Gobernua bi helikoptero bidali zituen, bata medikua zena. Baina eguraldi txarraz zientzen di ganean gelditzen utzi. Altsasu eta Iruñeko suhiltzaileak eta Guardia Civileko GREIM taldekoak oinez igo ziren Berriainera. Mendizalea erreskatatu eta ohetilan helikopteroa lur hartu zezakeen tokiraino eraman zuten. Handik Arbizuko kanpinera eraman zuten eta medikua zuten helikopteroan Nafarroako Ospitale Gune-ra eraman zuten, 15:45 aldera.

Horien artean daude Maitane Intxaurre eta Juan Kruz Aldasoro. Atzo taberna eta elkarrekin 110 ordezkari joan ziren Madrilera. Haien artean zegoen Garzonen aginduz Altsasuko Herria Eginez elkarrekin itxi zenean zuzendaritzako buru zen Juan Manuel Altzelai.

Fiskaltzaren arabera HB-k, EH-ek eta Batasunak ETA finantzatu zuten. Finantzaketa hori herriko taberna eta elkarrekin bidez egiten zela dio. Finantzaketa horren errudun 34 auzipezuak egiten ditu, ez 110 elkarrekin eta tabernetako ordezkariak. Azken horiek ez daude auzipetuta, beraz ez indutuzte zigortu. Fiskaltzaren taberna eta elkarrekin arduradun zibil egiten dituzte eta haien ondasunen bahiketa, desjabetzea nahi du. Desjabetze horri uko egiteko eskubidea onartzen du Prozedura Kriminalaren Legeak eta horri aldarrikatu zuten atzo. Lastailaren 17an hasi zen epaiketaren hurrengo saioa azaroaren 18an segituko du.

## Astelehenean zabalik PSNren Gertuko Bulego Parlamentaria



Maite Esporri parlamentari sozialista astelehenean 19:00etatik aurrera Altsasun izanen da, Talde Sozialistaren egoitzan. Sakandarrak informazioa eskatu edo intereseko edozein gai mahai ganean jartzeko aukera izanen dute. Parlamentariak momentuan bertan ezin badute erantzun, "beharrezko gestioak egiten dituzte gerora interesatuari jakinarazteko". Alderdi sozialista, herritarren parte hartzea sustatzeko eta gardentasuna handitzeko PSNren ekimenetako bat da hori. Lastailaren 9an egon zen aurreneko Esporri Altsasun eta abendua ren 16an ere etortzekoa da.

### Jazarpn sindikal salaketa

ELAko ordezkariak adierazi digute negozioa ez lortutako akordio ekonomikoa "ongi" dagoela. Baina enpresak eraman duen estrategiarekin ez daude ados ELA eta, horregatik, ez dute akordioa sinatu. "Edozein enpresatan lehenik kontratuak aldi batez eteteko EEE aurkeztzen da eta harekin esperotako emaitza lortzen ez bada

enpresak kaleratzeak jartzen ditu mahai ganean". Portlandek alderantziz egin duela salatu dute ELAko kideek, "ekonomia arrazoiengatik kaleratzeak egin zituzten eta orain ongi dagoen EEE bat onartzen dute. Horrek erakusten du dirua dagoela eta kaleratzeak ez zirela ekonomiaz egin".

Iraila despeditu aurretik sei langile kaleratu zituzten (ELAko 5 eta LABeko 1) eta urtea bukatu baino lehen beste hiruk (ELAko

bi) utziko dute porlandegia. Bi sindikatuak jazarpn sindikala eta beste arrazoi batzuegatik kaleratze horiek auzitegian salatu zituzten. "Hasiera batean 29 izan behar ziren kaleratuak, azkenik 18 izan ziren: bat zuzendaritzako kidea da, 58 urte betetzear 6 langile aurre-jubilatuko eta beste 11 langile. 29ko zerrandan zeuden ELAko eta LABeko kide guztiak kaleratu daude" salatu dute ELAko kideek.

# SAKANA

## Lurkide bila

Deikaztelu eta Itxaso lotuko dituen 400 KV-eko linearen kontrako egitasmoa berria da Lurkide. Goi tentsioko linea pasako den 35 udalerrietan 49 eta 81 metro bitarteko dorreak jarriko lituzke Red Eléctrica Española, 247 hain zuzen ere. Autopista Elektrikorik Ez plataformak haiendako amabitxi eta aitabitxi bila hasi da Lurkide kanpainaren bidez eta *Geroa lurretik hasi* leloa hartuta.

Lurkide bihurtzen den elkarte, erakunde edo norbanakoa dorre bakoitzaren oinarriak hartuko duen 10x10 metro lur sailak babestuko du, haren jabetza hartu gabe. Lurkide agiria ekitaldi batean banatuko da (dorreen zenbakia eta kokalekua izanen ditu), egitasmoaren kontrako banderola bate-



Autopista Elektriakoaren kontrako mobilizazioa.

kin batera (ekarpen sinbolikoa eskatzen da). Plataformak ekimen horrekin sare sozial handi bat sortu nahi du egitasmoari buruzko informazioa zabaltzeko. Lurkide izan nahi dutenek plataformekin harremanetan jartzea besterik ez dute.

**Sakanan**  
Ibarrean 71 dorre jartzea aurreikusita da. Horiekin Altzaniako partzoneriako seiak gehituz gero 77 lirartekete. Gainera, ibilbide guztian

Dorreak	Dorre kopurua
Udalerría	22
Arakil	3
Irañeta	9
Uhartea Arakil	2
Arruazu	2
Lakuntza	5
Arbizu	8
Etxarri Aranatz	4
Bakaiku	4
Iturmendi	4
Urdiain	8
Altsasu	

dorre gehien hartuko lukeen udalerria ere sakandarra da: Arakil, 22 dorrerekin.



## » Etxeberri

# Kontzejuko pisua salgai

**Kontzejuak Etxeberrin duen pisua salgai jarri du. Hasierako prezioa 38.030 eurokoa da. Salmentako diruarekin eta udalaren laguntzarekin frontoia estaltzeko lanak ordainduko ditu**

Etxeberriko Kontzejuak Kontzeju etxeko bigarren pisuan duen pisua salgai jarri du. Salmenta enkante bidez egingen da, eta hasierako prezioa 38.030,86 eurokoa izanen da. Interesatuak euren eskaintza aza-

roaren 18a baino lehen egin behar dute, Arakilgo Udalean.

## Frontoia estali

Pisuaren salmentarekin lortutako dirua frontoia estaltzeko lanetara bideratuko da. Lanek 90.000 euro inguruko aurrekontua dute. Arakilgo Udalak 27.000 euroko diru-laguntza emanen dio kontzejuari aipatu lanetarako.

Etxeberriko Kontzejuarendako garrantzitsua da frontoia estaltzea. Horrek festetako bazkari-afariak han egiteko aukera emateaz aparte, urte guztian aterpean kirola egiteko aukera ematen die etxeberriarrei, eta herritarren topalekua izango da eguraldia kaxkartzan denean. Egun, festetan frontoia estaltzeko urtero karpabat alokatzen du Kontzejuak.



Etxeberriko elkartearen gainean dago Kontzejuko pisua.

## » Altsasu



Natalia Saiz.

## Saiz Espainiako Edertasun Erregina lehiaketan

Atzo hartuko zuen Fuengirolako bidea Natalia Saiz altsasuarra, Malagako herrian azaroaren 8an jokatu-ko baita Espainiako Edertasunaren Errege eta Erregina lehiaketa. Maiatzaren 19an jokatu zen Nafarroako lehiaketan lehen dama izendatu zuten eta beste bi sari ere eman zizkieten. Lehiaketako estatuko arduradunak orduan esan zion haien gogokoa zela eta beste erkidegoren batean ordezkarikeez balego Espainiako lehiaketan parte hartzeko aukera izanen lukeela. Eta hala gertatuda. Saizek Aragoi ordezkatzu parte hartuko du Fuengirolan.

Garagarrilean, jakinarazi ziotenean, pozik hartu zuen berria 19 urteko altsasuarra. Galetan janzteko zenbait soineko erostez aparte, egunero gimnasioan lan egin du, dietan egon da, saskibaloian aritu da, txakurrak lagunduta korrika aritu da eta takoi gainean ibiltzen aritu da. "Batez ere konstantzia da. Egunero lan egin behar da". Azken lau hilabeteak lehiaketa prestatzen "topera" ibili dela aitortu digu, "emakume gorputza lortzeko".

Saiz Fuengirolara irabazteko gogoz joanen da. "Espainia nazioarteko lehiaketa batean ordezkatzeko gauza handia litzateke". Aurrera begira modaren arloan lan egitea gustatuko litzaiotke. "Desfileak, argazki saioak... Moda kontuekin agenda beteta izatea gustatuko litzaidake". Bitartean, Vilanova i la Geltruuko Totspots Basquet Samataldearekin Katalunian kolehen mailan jokatzeko arituko da. Aurreneko sei partidetatik lau irabazi dituzte eta pozik da, "beste taldeek duten eskarmentua nabari da".

## » Ergoiena

# Udalak Kattukako matrikula diruz-lagunduko du



Haurrak Ergoienan.

## Gastuen igoyeratik igo da aurrekontua

Unanuko Kontzejuak 2014rako aurrekontua onartu du: 76.200. Aurtengo aurrekontua baino 5.500 euro gehiago dira. Aldea argindarraren eta bestelakoen prezioen igoerek ekarri dute. Bestela, kontzejuak aurrekusi du ondareko diru-sarreretatik eta herri-lurre-

tako aprobetxamenduetatik 48.200 euro eskuratzea.

Unanuko Kontzejuak bileran aztertu zuten Dorraorako dermioko bidea konpontzea. Egoki jo zuten bikontzejuak lanak aldi berean egitea. Eta badaezpada 6.000 euro inguru bideratu dituzte lan horretarako. Beste bide batean kanadiar pasa egiteko asmoa du kontzejuak, auzolanean egitea aurrekusi dena.

Ergoienako Udalak jaiotzak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzan aldaketa egin du. Orain arte Ergoienan jaiotako haurren gurasoei diru-laguntza ematen zien udalak: 400 euro aurreneko umea izatean, 700 bigarrena denean eta 1.000 hirugarrenaren kasuan.

Horiek bere horretan mantendu ditu eta laguntza jasotzeko beste aukera bat gaineratu du: Kattuka haur eskolako matrikula. Lakuntzako eta Arbizuko udalek sustatu dute Kattuka eta bi herrietako haurrez aparte inguruetakoak hartzen dituzte. Kasu honetan, haurren gurasoek

gehiago ordaindu behar dute. Ergoienako Udalak ordenantzaren aldaketa onartuz gurasoei haur eskolako gastuan laguntzea onartu du.

## Baldintzak

Ordenantzak aurtengo 4.000 euroko diru poltsa du. Joan zen urtean udalak diru-laguntza bakarra eman zien guraso dorrobar batzuei. Aurtengo, oraingoz, Lizarragako bikote batek jasoko du. Horretarako hiru baldintza bete behar dira. Lehena, Ergoienan errolatuta egotea. Bigarrena, Ergoienan bizitzea eta, azkena, udalarekin inolako zorrik ez izatea.

## » Altsasu

# Zelandin aurki aparkalekua

Herenegungo udal bilkuran Altsasuko Udalak Alzate eraikuntza enpresarekin lankidetzak hitzarmena egitea onartu zuen. Osasun etxe ondoan 40 ibilgailurendako behin behineko aparkalekua egingen da. Juan Carlos Orellanak esan zuenez, proba moduan eraikiko da aparkalekua eta emaitza ona badu, aldameneko lurren jabeekin hitz egingen dela hura zabaltzeko.

Orellanak azaldu duenez, bi dira aparkaleku horren helburuak. Batetik, azoka egunetan herrietatik etortzen direnei aparkatzeko toki bat eskaintzea. Dendariak eskaera eginga zutela gogora ekarri zuen. Horrekin batera, eskolako sarrera eta irteera orduan gurasoek sortzen duten ibilgailuen "kaosa" eragotzi nahi da. Unai Hualdek alkatetzari eskatu zion behin lanak eginda aldameneko kaleetan aparkalekua non dagoen adierazten duten seinale-



Amak eta haurrak eskolatik etxera. Eskubitan, aparkalekurako orubea.

ak jartzeko.

Udalak hiri-kontribuzioaren truke eskuratuko du lurra erabiltzeko eskubidea. Aparkalekua inguru horretan etxeak eraiki-

tzen hasi arte izanen da indarrean. Lanak egiteko 14.780 euro bideratuko ditu udalak.

Bestalde, Alkozko Inerlantxo enpresak egingen ditu Zumalaka-

## Mozioak

Herrira erakundearen kontrako polizia operazioa salatzen zuen mozioa adostu zuten Nafarroako Parlamentuan Bilduk, Aralar-NaBaik, I-Ek eta GeroaBaik. Altsasuko Udalak bat egin zuen harekin. Bestalde, IUK aurkeztuta, Nafarroa etxebizitzarako eskubidea bermatzeko premiazko neurriak jasotzen dituen legearen kontra Estatuak jarritako helegitea salatu egin zuen Altsasuko Udalak.

rregiko aterpeko lanak. Orellanak jakinarazi zuenez, udalak aurrekusi 93.015,73 euroko aurrekontuari %15eko beherapena egin diote. Gainera, bilkura berean udalak onartu egin zuen 3.600 euro bideratzea Iortia kultur gunerako soinu eta argiteri mahai bana erosteko, baita eraikin bereko erakusketa gelarako bideo-zaintza sistema ere.



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es

## Maria Rosario Cerdan Calvo "Txaro"

Zuk emandako maitasunak,  
zure gozotasunak,  
zure irribarreak eta  
zure alaitasunak  
pozez bete dituzte gure bizitzak

Mila esker eman diguzun guztiagatik.  
Mila esker zu izateagatik.  
Beti eramango zaitugu  
gure bihotzetan.  
Maite zaitugu.

Zure anai-arrebak eta ilobak



**Hainbat  
aukera**

Galdetu

948 564 275

## Oroigarriak



**Guaixe  
KOMUNIKAZIOA**

948 564 275

# guaixe.iragarkilaburrak.com

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en **doan**  
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/hartu,  
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

## HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorian@guaixe.net](mailto:zorian@guaixe.net)

### Higiezinak

#### LOKALAK

#### ERRENTAN EMAN

**Azi Iturri Txokoa** elkarteak alokatzen da.  
Lizarragako festetan, azaroaren 22an, 23an eta  
24an. Gutxienez 600 €. Enkantea azaroaren  
10ean arratsaldeko 17:00etan izanen da elkartearen  
bertan.

### Opatutakoak / galdutakoak

#### GALDUTAKOAK

**Eguzkitako betaurreko beltzak galduta dira**  
Etxarrin. Otsoin eta Epele inguruan. Opatzen  
duenak deitu 948 460 200ra.

### Ikastaroak

**Txalaparta ikastaroa Iñigo Aritzia ikastolan.**  
Azaroko astelehenean. Orduak: 17:00-18:30.  
Izena emateko epea urriak 31 baino lehen. Familia,  
ikasle, irakasle eta lagunei zuzenduta.

**AESei ikastaro hauek antolatuta ditu.** Ingelera  
C1 (aurreratua), 60 ordu, azaroaren 18tik urtarrilaren  
30era; 2D aurreratua eta 3D planoen disei-  
nua, 40 ordu, azaroaren 25etik urtarrilaren  
20era.

**Shantala haur masaia.** Jaiotzetik 12 hilabeteko  
haurrei zuzendua. Lau sesioko ikastaroa. Azaroko  
5, 7, 12 eta 14. Arratsaldeko 17:00etatik-  
19:00etara Kattuka haur eskolan (Arbizu).  
Interesatua bazaude edo informazio gehiago nahi  
izatekotan jarri gurekin harremanetan: telefonoz  
948-56 70 09, email: [kattukahaureskola@gmail.com](mailto:kattukahaureskola@gmail.com).

**Altsasuko udal ikastaroen eskaintza.**  
Tailerrak: autoezagutza eta garapen pertsonala,  
ahalduntzea. Informazio gehiago [iortia@altsa-  
su.net](mailto:iortia@altsa-<br/>su.net), 948 56 42 72.

**UGT sindikatuak antolatutako ikastaroak.**  
Psikomotritate geriatrikoa; Elektrizitatea II;  
Zeharkako orga jasotzaileak erabiltzeko gidatzaileak.  
Informazio gehiago 948 46 71 20.

**IFESek hainbat ikastaro antolatuta ditu**  
Iruñean. Informazio gehiago [www.ifes.es](http://www.ifes.es), 948-  
15 31 93 edo 948-46 71 20. On line ikastaroak:  
izen ematea <http://www.ifes.es>.

**Forem Navarra - CCOO ikastaroak.**  
Informazio gehiago: [www.foremnavarra.org](http://www.foremnavarra.org)

**AIN-consulting ikastaroak.** Informazio gehi-  
go: 948 42 11 23 eta [formacion.ain.es/](http://formacion.ain.es/)

### Lehiaketak

**Banden lehia txapelketa.** Azkue fundazioak  
antolatzen du eta helburua euskal musika talde  
amateurrik onena saritzea da. Informazio gehi-  
gorako [www.bandenlehia.com](http://www.bandenlehia.com). Azaroaren 1a arte.

**Gaztezero Bertso Paper lehiaketa.** Hi eta hire  
munduak gaia hartuta 1-3 minutu arteko bideoak  
aurkeztu behar dira. Informazio gehiago:  
[www.gaztezero.com](http://www.gaztezero.com). Azaroaren 4a arte.

**Gaztezero Bertso Paper lehiaketa.**  
Proposatutako lau argazkitako baten gainean bi  
zortziko txiki idatzi behar dira. Informazio gehi-  
go: [www.gaztezero.com](http://www.gaztezero.com). Azaroaren 4a arte.

### Oharrak

**Patata operazioa.** Azaroaren 3an, igande goizean  
eginen dute Alegria de Iruñeko kideen  
Hermanitas de los Pobres egoitzarako patata bil-  
keta. Urriaren eta Satrustegi artean ariko dira.

**Argia ikastolari laguntzeko.** Laboral  
kutxa: 3035 0102 39 1020046142; Rural kutxa:  
3008 0003 01 2598878821; Caixa: 2100 3695  
18 2210009146; Kutxa: 2101 2505 16  
0128446333.

**Haurren errietoak errespetatzen dituen**  
eskola libre nahi baduzu. Deitu 661- 59 04  
20 telefonora.

**Euskonek ekonomikoki laguntzeko kanpai-  
na.** Informazio gehiago:  
[www.euskonek.com/laguntza](http://www.euskonek.com/laguntza)  
[euskonek@euskonek.com](mailto:euskonek@euskonek.com), 943- 32 22 94.

**Inausketa nola egin - trukea.** Informazio  
gehiago [larrezabalddk@inigoaritz.com](mailto:larrezabalddk@inigoaritz.com)

**3MBk kontu korrontea zabaldu du.** Rural  
kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak  
3008 0093 66 2460985811

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.**  
Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38  
50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoe-  
tara hots egin dezatela.

**Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.**  
Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi

duen kopurua eman dezake. Informazio gehi-  
go: [amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com](http://amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com) eta  
[amigosfosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosfosefinaarreguilagunak@gmail.com)

**Eskuratu zure beleixeguaix txartela.** 50€ko  
kuota urtean eta deskontu eta abantaila parega-  
beak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman  
edo bete formularioa gure webgunean [www.guaix-  
e.net](http://www.guaix-<br/>e.net).

**Nafarroako Ondarearen Defentsarako**  
**Plataforma laguntzeko.** Eliza katolikoak,  
Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez,  
Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publi-  
koen inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen.  
Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian  
dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman.  
Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea  
zabaldu dute Nafarroako Kutxa: 2054/0142 68  
9152623199.

**Lugorri produktu ekologikoen elkarrekin eta**  
**denda.** Sakanan produktu ekologikoen zuzenean  
eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta  
abeltzainekin harremanetan jarri edo hornitzaile  
desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu  
ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko par-  
taide egiteko 50 euroko kuota bakarria eskatzen da.  
Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen  
parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia,  
arropa, olio, gazta, arroza, pasta, galletak, txokola-  
tea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezta,  
arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina...  
Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

**Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko**  
**boluntarioen kanpaina.** Haietan premiazkoak  
direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako  
arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa;  
esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko maki-  
nak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora era-  
man: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora,  
irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkene-  
tan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948  
460 875 telefonoak.

**Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua**  
**Sakanan.** Sakanako Mankomunitateko  
Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin  
harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta  
baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko  
itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena:  
itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hiz-  
kuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen  
gatazken arrian bitartekaritza zerbitzua.  
9:00etatik 10:30era osasun zentroetan,

11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00eta-  
tik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenean  
Etxarri Aranatzan, asteartean Iruztunen eta  
ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu  
648 07 07 10 edo [immigrazioa@sakana-  
mank.com](mailto:immigrazioa@sakana-<br/>mank.com) posta elektronikoz.

**Gazteendako sexualitate aholkularitza.**  
Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara  
Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda  
kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazte-  
ria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

**Izan zaitez Mintzakide!** Euskara ongi dakien  
bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru per-  
sonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez.  
Taldea gustuko duena egitea aukeratzeko du:  
kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz.  
Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, saka-  
na\_mintza@aek.org e-posta edo  
[sakanamintza.blogspot.com](http://sakanamintza.blogspot.com) ataria.

**Euskal Memoria Fundazioak babesleak**  
**behar ditu.** Euskal Herriaren memoria berresku-  
ratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak  
6000 babesle behar ditu. Informazio guztia:  
[www.euskalmemoria.com](http://www.euskalmemoria.com) web gunean.

**Iparraldeko Ikastolak laguntzeko.** Bi kontu  
zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko:  
3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa)  
eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

**Garraio laguntzarako diru bilketa.** Sortzen  
litasatuazek eremu erdaldunekoak diren eta  
ikasketak D ereduaren egiteko beste eskualdeetara  
joan behar duten ikasleek garraioa laguntzeko  
Euskadiko Kutxa hurrengo kontu zenbakia  
zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

**Emakumeendako doako aholkularitza juri-  
diko.** Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko  
mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufritzen ari baza-  
ra, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izateko  
bikotearen eta ezkontzearen alde...  
Emakumearen Bilgunera jo, Altsasuko Gure Etxean  
(948 564 823 edo [berdintasuna@altsasu.net](mailto:berdintasuna@altsasu.net)).

**Ezgaizten Elkarteak bazkideak eta lagun-  
tzaileak behar ditu.** Sakanako Ezgaizten  
Elkarteak bazkide kanpaina martxan jarri du.  
Horretarako 660 29 96 17 telefonora hots egin  
behar da. Bestalde, Sakanako ezgaizteuek aisia  
behar dute. Laguntzaile izan nahi baduzu deitu  
649 189 249 (Eladia). Eskerrik asko Sakanako  
Ezgaizten Elkartetik.

**Itzulpen zerbitzua.** Sakanako  
Mankomunitatearen zerbitzua ibarreko udalek eta  
mankomunitateek, komertzioek, enpresek eta  
elkarrekin erabil dezakete urte guztian zehar.  
Doakoa da. Itzuli beharrekoko jendaurrean edo  
agerian egon behar duen testua izan behar du.  
Eskariak mankomunitateko euskara zerbitzura  
egin behar dira (948 464 840 edo  
[itzulpenak@sakana-mank.com](mailto:itzulpenak@sakana-mank.com)) Ez dira bilera edo  
aktak itzuliko, ezta Nafarroako Aldizkari  
Ofizialearen argitaratuko den ezer ere. Gehienez ere

### JAIOTZAK

• **Haize Lasa Castellano**, irailaren  
29an Altsasun.

### EZKONTZAK

• **Jorge Azanza Soto eta Alaitz Ruiz**  
**de Luzuriaga Martinez**, urriaren  
25ean Ziordian.

• **Jose Vicente Alonso Millan eta**  
**Beatriz Velasquez Gonzales**,  
urriaren 25ean Altsasun.

• **Gaizka Azpilikueta Ros eta Amaia**  
**Zubiria Aldaz**, urriaren 26an  
Urdiainen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan  
jasotzen da

5 orrialdeko dokumentuak itzuliko dira.

**Naziotasun eskubidearen urraketak salatze-  
ko telefonoa.** Giza Eskubideen Aldarrikapen  
Unibertsalean ageri den naziotasun eskubidea  
urratzen jarraitzen dute frantziar edo espainiar  
izatera behartzen gaituztenean. Gurea ez den  
naziotasuna adieraztera behartzen gaituzten  
bakoitzean (edozein izapide administratibo edo  
ekonomiko egitekoan, botoa ematerakoan,  
etab.) salaketa egiteko telefonoa jarri du  
Udalbiltzak: (0033) 559 595 648.

**Saharan giza laguntza banatzeko garraio**  
**basea.** Hori egiteko Mugarik Gabeko Teknikari  
eta Langileen Elkarteak kontu korrontea zabalik  
du Rural Kutxa: 3008 0085 86 1463467025

**Alkoholikoen lagun eta familiartekoen**  
**laguntza taldea.** AL-ANON elkarte alkoholiko-  
en lagun eta familiartekoen laguntza taldea da.  
Harremanetarako, deitu 639 400 406 telefonora.

**Preso sakandarrei idazteko deia egin du**  
**Etxerat-ek.** Sakanako Etxerat-ek Sakanako pre-  
soei idazteko deia egin du. Hona hemen Etxerat-  
ek emandako helbideak: Jesus Mari Mendinueta  
Centro Penitenciario Zuera, 50800 ZUERA-  
Zaragoza; Unai Parot Centro Penitenciario Puerto  
III, Ctra Jerez- Rota km 4,5, 11500 PUERTO DE  
SANTA MARIA - Cadiz; Luis Mariñelarena Centro  
Penitenciario de Texeira-Curtis, Estrada de  
Paradela s/n, 15310 CURTIS - A Coruña; Asier  
Karrera C. Penitenciario La Moraleja, Carretera  
Local P-120, 34210 DUEÑAS - Palencia; Juan  
Ramon Karasatorre Centre Penitenciaire de St.  
Martin de Re, La Citadelle, 17410 SANT MARTIN  
DE RE - Francia; Oihan Barandalla 28849 G.  
Maison d'Arret des Hauts de Seine 133, Avenue  
de le Commune de Paris. B.P. 1414. 92014  
Nanterre (Francia); Jon Gurutz Maiza Artola  
4635 Maison Central de Saint Maur, Bel Air,  
36250 Saint Maur Cedex, France) eta Hodei Ijurko  
(C.P. A Lama. Monte Racelo s/n. 36830. A Lama.  
(Pontevedra) Galiza; Bautista Barandalla Berjera  
kalea. 31820 Etxarri Aranatz (Nafarroa).

## PILOTA

**ZUDAIRE AURRERA LAU T'ERDIAN:** Nafarroako Gazteen Mailako Pilota txapelketan, Guillermo Mazo Memorialean, Irur-

tzun taldeko Zudairek aurrera egitea lortu du. Partidak galdu eta gero, bidean gelditu dira Aldaz, Grados, Huarte eta Galarza.

## Aizkora



## Nazabal Urrezko Koparen bila

Larunbatean, azaroaren 2an, Urrezko Aizkolarien Txapelketa Koparen bila jokatu da Bilboko La Esperanza pilotalekuan, 12:00etatik aurrera. Final honetan asteburuan despeditu zen Urrezko Aizkolarien Ligako sailkatutako lehen hiru aizkolariek ariko dira: Floren Nazabal (10 puntu), Aitzol Atutxa (9 puntu) eta Juanjo Lopez Azpilikueta (8 puntu).

### BELTZA EROSKI TORNEOAN

Larunbat arratsaldean, 19:00etan, Gasteizko El Boulevard merkatal guneak I. Eroski Torneoa-Aizkolarien Boulevarda txapelketa hartuko du. 6 aizkolariek ariko dira, Aritz Irazabal, Eneko Otaño, Jon Rodriguez, David Naredo, Eloi Kortxero eta Goizeder Beltza etxarriarra.

### Pistako txirrindularitza

## Hodei Mazkian Manchesterren

Asteburuan Pistako Munduko Kopako lehendabiziko proba jokatu da Manchesterren. Bertan ariko diren 7 euskal txirrindularien artean Hodei Mazkian altsasuarra dago.



## Pala

## Aristorenatarrak Nafarroakoari hasiera bikaina

Hasi da Nafarroako Emakumeen Paleta Goma Txapelketa. 6 bikote ariko dira, Oberenako 4 eta San Migelko 2. Lehendabiziko jardunaldian bikotea osatzen duten Yanira eta Saioa Aristorena ahizpek 30-23 irabazi zieten Etxarri eta Mariari.



## Pilota

# Ezkurdia aurrera

RETEGI BIREN KONTRA 15-22 IRABAZI ONDOREN, LAU T'ERDIKO FINAL LAURDENEN LIGAXKARAKO SAILKATU DA ARBIZUARRA, TXAPELDUNEN MULTZOAN. IRUJO, OLAIZOLA II.A ETA XALAREKIN JOKATUKO DU FINAL LAURDENETAKO LIGAXKA.

Bizitzak buelta asko ematen dituela jakina da. Bestela, esan diezaitela Joseba Ezkurdiari. Mendizabalen kontra Aspeko atarikoak galdu ondoren etxean geratzetik, Gonzalez ordezkatu eta lau t'erdiko final laurdenen ligaxkan aritzera pasatu da Arbizuko aurrelaria.

### Merezita

Mendizabalen aurka atarikoak galdu ondoren enpresak Gonzalez ordezkatzeko eman zion aukerak zeresana eman zuen baina argi eta garbi esan daiteke Ezkurdia merezita dagoela lau t'erdiko txapelketako ligaxkan. Izan ere, emandako aukera bikain aprobetxatu du. Txapelketako lehen partidatan atzera ere Mendizabalen kontra aritzea tokatu zitzaion eta, lezioa bikain ikasita, gipuzkoarraren gainetik pasazen nafarra, 6 tantotan utziz. Eta, astelehenean, final zortzirenetan, ustez favorittoa zen eta dirua nabarmen alde zuen Retegi Biri 15-22 irabazi zion Ezkurdiak, oso ondo jokatu.



Ezkurdia eta Xala, elkarren kontra Binakakoan aritu zirenean. ARTXIBOA

Arbizukoak oso erasokor jokatu zuen, boleaz etengabe, eta Retegik ezer gutxi egin ahal izan zuen Ezkurdiaren abiaduraren aurrean. Pilota biziak lagundu zioten horretan. Retegi espezialista da lau t'erdian, baina lotuta balego aritu zen, askatu gabe. Gainera, behar

baino huts gehiago egin zituen eta botearekin ez zion min gehiegirik eman Ezkurdiari. "Ez dut nire maila eman" esan zuen partida bukatu ondoren Retegi Bik. Aldiz, Ezkurdiak oso ongi sakatu zuen, airez sartuta min asko egin zion Erasungoari eta piloteoan nagusi izan zen.

## Pala

# Neskak, palak astintzera

SAKANAKO NESKEN VIII. PALA TXAPELKETA GAUR HASIKO DA. 5 JARDUNALDIKO LIGAXKAREN ONDOREN, ABENDUAREN 15EAN FINALA JOKATUKO DA



Sakanako Emakumeen Pala Txapelketako aurreko urteko finalistak. Aurten 26 bikote lehiatuko dira. ARTXIBOA

Asteburuan hasiko da Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Etxarriko Nesken Pala Eskolarekin batera antolatutako Sakanako Emakumeen VIII. Pala Txapelketa. Guztira 26 bikote ariko dira, 5 kategoriatan banatuta: kimuak (5 bikote), haurrak (4 bikote), kadeteak (6 bikote), gazteak (5 bikote) eta helduak (6 bikote).

Partidak Etxarri Aranzko pilotalekuan jokatu dira, ostirale-

tan. Hasieran 5 jardunaldiko ligaxka jokatu da. Abenduaren 6an final aurrekoen txanda izango da eta final handiak abenduaren 13an, 14an eta 15ean jokatu dira. Kimuetan, kadeteetan, gazteetan eta helduetan hasierako ligaxkan sailkatzen diren lau bikoteak sailkatuko dira final erdietarako. Lehenengo sailkatuak laugarrenaren kontra jokatu du eta bigarrenak hirugarrenaren kontra.

Haurren kategorian, aldiz, txapelketa bi bueltetara jokatu da eta lehenengo bi bikoteek finala jokatu dute.

### 30 palista Etxarriko eskolan

Emakumeen pala sustatzeko lan handia egiten ari da Etxarriko Nesken Pala Eskola. Egun 8 urteko gorako 30 neska entrenatzen dira bertan, Migel Aristorena eta Yanira eta Saioa Aristorenaren

## Xalaren kontra ligandean Eibarren

Lau t'erdiko final laurdenetako ligaxkan, 1 multzoan Yves Salaverri Xalazangodu aurkari Joseba Ezkurdiak. Partida Eibarko Astelenan jokatu da, 17:00etan (ETB1). Nahiz eta Xala favoritotzat, orain arteko mailarekin jokatu badu, gauzak oso zail jarriko dizkio Ezkurdiak lapurtarrari. Ligaxkako gainontzeko partidak ondokoak izango dira: 1 multzoan Olaizola II.a - Irujo (larunbatean, 17:30ean, Bilboko Bizkaian. NITRO) eta 2 multzoan Arretxe II.a - Idoate (ostiralean, 17:00etan, Iruñeko Labriten) eta Bengoetxea VI.a - Saralegi (ostiralean, 17:00etan, Donostiako Atano III.lean. ETB1).

Hasieran Ezkurdia aurreratu zuen baina Retegik 9-8 aurreratzea lortu zuen. Hortik aurrera 7 tantosegidan egin zituen Ezkurdiak, 10-17 aurreratu. Sakea berreskuratu, 14-17 hurbildu zuen Retegi, baina huts baten ondorioz Ezkurdiak sakea lortu zuen eta merezitako garaipena lortu zuen, 15-22. Orain, 1 multzoan, Xala, Irujo eta Aimarren kontra aritu beharko du.

## Lehen jardunaldia

### Kimuak:

Narrea-Irantzu / Maitena-Elai Elorri-Saioa / Uxue-Narrea O.

Atsedena: Ane-June

### Haurrak:

Dinora-Ainhoa / Amaier-Narrea L.

Aroa-Oihane / Maddalen-Nahia

### Kadeteak:

A.Nagore-Maddi / Maddi-Amaia Irati I.-Ane / Garazi-Aiora

Ariane-Uxue / Irati L.-Lide

### Gazteak:

Olaia-Izar / Ainara-Ekhiñe Irati-Miriam / Uxue-Andrea

Atsedena: Andrea-Irati L.

### Helduak:

19:30ean: Maite-Saioa / Narrea-Garazi

20:15ean: Yanira-Rebeka / Aitziber-Ixone

21:00etan: Laura-Nagore / Ainhoa-Maddi

begiradapean. Eskolatik puntako palistak ateratzen ari dira eta urteko urterekin kalitate hobegoko txapelketak eskaintzen dituzte. Sakandarrekin batera, Nafarroako eta Euskal Herriko palista onenak ariko dira Sakanako txapelketan. Hortaz, merezi du ostiraleko Etxarriko frontoitik buelta bat emateak, partida bikainetaz gozatzeko aukera izango baita. Has dabil txapelketa!

**Atletismoa**

**XIII. Sakanako Herri Lasterketa (7 km). Sakandarrak:**

1. Javier Erdozain (Lizarra) 22:46
2. Israel Arbizu (Etxarri) 23:14
4. Javi Moreno (Altsasu) 23:36
6. Alberto Martinez (Lakuntza) 23:44
7. Felix Benjumea (Altsasu) 23:57
9. Iban Gonzalez (Urdiain) 24:48
12. Juantxo Arregi (Altsasu) 25:56
15. Francisco Javier Gomez (Alts.) 27:02
16. Juan Carlos Gomez (Alts.) 27:02
18. Juantxo Azurmendi (Alts.) 27:21
19. Iñaki Rubio (Lakuntza) 27:34
20. Santi Agirre (Iturmendi) 27:53
23. Gorka Arratibel (Etxarri) 28:14
25. Iñigo Tobar (Altsasu) 28:26
29. Mikel San Martin (Etxarri) 29:43
31. Erkuden San Martin (Etx.) 30:09
34. Ismael L. de Goikoetxea (Alts.) 30:39
35. Imanol Etxarri (Urdiain) 30:42
36. Jone Pelaez (Altsasu) 30:56
37. Aingeru Azazeta (Altsasu) 30:56
38. Peio Larraza (Altsasu) 31:06
39. Julen Paniagua (Altsasu) 31:07
42. Patxi Atxa (Etxarri) 32:23
44. Saray Garasa (Olazti) 32:44
47. Joxe Mari Mercero (Unanu) 33:32
48. Maria Goikoetxea (Etxarri) 34:04
49. Josune Senar (Etxarri) 34:27
50. Ixa San Martin (Etxarri) 36:29

**Kadeteak**

1. Fermin Azkargorta (Itur.) 18:47
2. Oihan Perez (Altsasu) 20:42

Eguraldia bat egin nahi izan zuen XIII. Herri Lasterketa-Burundesari Sari Nagusiarekin. Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuzuen proba, Burundesaren babesle nagusiaren eta Dantzaleku Sakana klubaren eta Etxarriko Udalaren laguntzarekin. Aurten Etxarri Aranatzek hartu zuen lasterketa. Lehenik eta behin kategoriatxikikoen probak jokatu ziren eta ondoren nagusien txanda iritsi zen. Etxarriko kaleetan barna prestatutako 2.250 metroko zirkuituari 3 itzuli eman zitoten korrikalariak. Guztira 120 korrikalari inguru aritu ziren, horietatik 52 proba nagusian.

Etxarri jendea poliki bilduzuen atletismo proba jarraitzera. Lehenik eta behin txikiaren lasterketak jokatu ziren plaza inguruan. Kategoriatxikikoen lehendabiziko hirurek domina jaso zuten, eta bukaeran auzatea izan zen. Ondoren, 17:00etan, ekin zitzaion proba nagusiari. Etxarriko plazatik aterata Malkorramendiko bidea hartu zuten korrikalariak, Aldapasoron buelta hartu eta, bide berritik

# Erdozain eta Muñoz azkarrenak Etxarri

**120 KORRIKALARIK HARTU ZUTEN PARTE XIII. HERRI LASTERKETA-BURUNDESA SARI NAGUSIAN, HORIETATIK 52 PROBA NAGUSIAN (52 KM). ISRAEL ARBIZU ETA ERKUDEN SAN MARTIN ETXARRIARRAK IZAN ZIREN LEHEN SAKANDARRAK**



Hasieran kategoriatxikiko probak jokatu ziren. Eskuinean Israel Arbizu, lasterketan bigarrena eta lehen sakandarra.



barrena, atzera ere plazarantz jotzeko. 3 itzuli eman zizkioten zirkuituari (7 km). 52 korrikalarik hartu zuten irteera eta 50 heldu ziren helmugara, horietatik 29 sakandar. Javier Erdozain nagusitu zuen hasieratik (22:46). Lizarrakoak 28 segundo atera zizkion Israel Arbizu etxarriarrari (23:14). Aurreko urteko garaile Jose Javier Cuadrado (23:32) osatu zuen podiuma. Emakumezkoetan Maialen Muñoz izan zen lehena (28:53), Erkuden San Martin etxarriarraren (30:09) eta Maite Aresen aurretik (30:13).

**Sariak**

Proba bukatuta auzate ederraz gozatzeko aukera izan zuten korrikalariak. Lehenengo hirurek, gizonzkoek eta emakumezkoek, trofeoak jaso zituzten, lehenengo juniorrek eta beteranok bezala. Lehen hiru sakandarrendako ere trofeoak izan ziren. Horretaz gain, pro-

**Elkarteen eta herritarren laguntza eskertu**

Sakanako XIII. Herri Lasterketa antolatzeko Mankomunitateak Etxarriko komertzioen eta jate-teen babesa eta herriko elkarten laguntza izan zuen. Hartzabal elkarteak auzateaz antolatu zen, Udaberri elkarteak probako izena ematean eta auzatean lagundu zuen eta Karriestu eta Larrañeta elkarteak segurtasunaz arduratu ziren, bidegurutzeak eta beste zain-tzeaz. "Oso eskertuta gaude elkarteek eta etxarriarrek emandako

laguntzarekin. Laguntza handia izan dugu. Bestela, eguraldiak lagundu du eta giro oso polita egon da lasterketan" adierazi digu Mankoteknikari Amaia Gerrikagoitiak. Tamalez, parte-hartzeak behera egin du aurtengo edizioan. "Aste-buru honetan herri lasterketa pilo bat egon dira Euskal Herrian barna. Hori asko nabaritzen da. Data hartuta daude eta oso zaila da egutegian hutsik dagoen data topatzea" gaineratu du kirol teknikariak. Dena den, probarekin pozik azaldu da Gerrikagoitia.

bako txapeladunak eta lehen sakandarrek 2 pertsonendako afaria jaso zuten saritzat. Javier Erdozainek Aritzalkon, Maialen Muñozek Bordan, Israel Arbizuk Iturriederren eta Erkuden San Martinek Derryn. Eta egon zen sari gehiagorik ere.

Korrikalari guztien artean Etxarriko denda eta komertzioek emandako 15 opari, Peio Goikoetxea masajistak emandako lau masaje eta Etxarriko Kanpinean eta Lizarragako Zugainen afaria zozketatu ziren.

**Mendi lasterketak**

## Unzurrunzaga, beterano nafar onena

**ETXARRIARRA LEHEN BETERANOIA IZAN ZEN NAFARROAKO MENDI LASTERKETEN BANAKAKO TXAPELKETAN**



Unzurrunzaga igandeko sari ematean.

Tafallako Trinkete Taldeak Hiru Mugak mendi lasterketa antolatu zuen larunbatean, lehenengoz. Lasterketa Alaitz mendizerran jokatu zen eta Unzue izan zuen irteera eta helmuga. Bi ibilbide ziren: I. Hiru Mugak (21,5 km eta 1.550 metroko desnibel positiboa) eta lasterketa herrikoia (15 km). Bi probatan 275 korrikalari lehiatu ziren.

Proba nagusian Joseba Larralde beratarra izan zen jauna eta jabe (2:02:25). Ia minutua atera zion Endika Gartzziari (2:03:10). Javier Tirapuk osatu zuen podiuma

(2:09:10). Ander Unzurrunzaga etxarriarrak sasoi betean jarraitzen duela demostratu zuen eta 4.a iritsi zen helmugara (2:10:08), probako lehen beteranoa. Jose Luis Beraza uharterra 6.a sartu zuen (2:12:40). Emakumezkoetan Laura Sola de Migel izan zen lehena (2:2:34). Joseba Larralde eta Laura Sola izan ziren Nafarroako Mendi Lasterketen Banakako Txapelketako txapeladunak eta Ander Unzurrunzaga eta Antonia Gil beterano onenak. Unzurrunzaga denboraldi paregabea ari da osatzen.

**I.Hiru Mugak (21,5 km). Sakandarrak:**

1. Joseba Larralde 2:02:25
4. Ander Unzurrunzaga 2:10:08
- Lehen beteranoa
6. Jose Luis Beraza 2:12:40
12. Gorka Santesteban 2:16:46
16. Aritz Munarriz 2:19:18
19. Fidel Jimenez 2:22:38
20. Mikel Berastegi 2:23:22
31. Adur Maiza 2:28:52
35. Jose Antonio Salgado 2:31:23
63. Mikel Satrustegi 2:42:03
72. Iraitz Senar 2:46:37
90. Asier Turunbai 2:55:05
91. Javier Gonzalo 2:55:05
119. Iñaki Lacalle 3:06:13
120. Francisco Jose Juango 3:06:19
122. Aritz Pellejero 3:07:17
134. Fernando Ariztegi 3:22:57

**I.Hiru Mugak. Herrikoia. (15 km). Sakandarrak:**

1. Sergio Markinez 1:35:45
12. Santi Galarza 1:45:38
53. Iñigo Arbizu 2:03:30
59. Migel Angel Lopez 2:07:07
80. Jose Maria Galindo 2:21:53

**Futbola**

**FEDERATUTAKO TXAPELKETA**

**3. MAILA**

**10. JARDUNALDIA**

**PAMPLONA 1 - LAGUN ARTEA 0**  
Lehen zatian Pamplona izan zen nagusi baina Orriok ongi babestu zuen lakuntzarren atea. 2. zatian Lagunek dominatu zuen baina gol aukerak ez zituzten gauzatu. Partida berdinketarekin despedituko zela zirudienean, Pamplonak gola sartu zuen azken minutuan.

Saillkapena >>

1. San Juan ..... 22 p
13. Lagun Artea ..... 11 p

Asteburuko jardunaldia

**LAGUN ARTEA - EGUESIBAR**  
(Igandean, 15:45ean, Lakuntzan)

**ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa**

**7. JARDUNALDIA**

**BERRIOZAR 0 - ALTSASU 2**  
**LAGUN ARTEA B 1 - DONEZTEBE 1**  
**ETXARRI ARANATZ 1 - AMAYA 2**  
Berriozarren ofizio askorekin jokatu zuten altsasuarek eta 0-2 gailendu ziren. Dariok sartu zuen Altsasuren lehen gola, 24. minutuan. Bigarren zatian Berriozarrek ez zuen jakin bere aukerak aprobetxatzen, eta minutu baten faltan Joelek Altsasuren 2. gola sartu zuen. Saillkapenean 4. postura igo da Altsasu. Larunbatean Lakuntzan jokatu zuen lehen Lagun Artea B-k eta Doneztebek bana berdindu zuten. Lagun Artea B-k gol aukera ugari izan zituen baina ez zituen aprobetxatu. Bukatzeko, Etxarri Aranatzek 1-2 galdu zuen etxean Amayaren kontra. Ongi jokatu zuen Etxarri, baina ez zuen kontrako atean asmatu. Amaya aurreratu zuen, Etxarri berdintzea lortu zuen baina bukaeran Amayak 2. gola sartu zuen

Saillkapena >>

1. Beti Kozkor ..... 16 p
4. Altsasu ..... 14 p
12. Lagun Artea B ..... 6 p
14. Etxarri Aranatz ..... 4 p

Asteburuko jardunaldia

**ALTSASU - LAGUNAK**  
(Igandean, 16:00etan, Altsasun)  
**AMAYA - LAGUN ARTEA B**  
(Igandean, 11:00etan, Amayan)  
**SAN JORGE - ETXARRI ARANATZ**  
(Ostirlean, 16:00etan, Iruñean)

**Futbola**

**SAKANAKO FUTBOL 8 TXAPELKETA**

**2. jardunaldia jokoan**

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuta, abian da Kimuen Futbol 8 Topaketa. Aipatu topaketa txapelketa moduan jokatzen ari da eta asteburuan joaneko lehendabiziko jardunaldia jokatu zen. Igandean 2. jardunaldia hartuko du Altsasuko Dantzalekuk.



**2. jardunaldia**

**Igandean, Altsasuko Dantzalekuk**

**10:30etik 11:30era:** Txartel - Etxarri Aranatz

**11:30etik 12:30era:** Dantzaleku - Sutegi

**12:30etik 13:30era:** Kaixo - Tipi Tapa

**11:30etik 12:30era:** A.K.T. - Lagun Artea

**12:30etik 13:30era:** Sayas - Urdiain

## Motoziklismoa

# Motegitik ospitalera

Munduko Abiadura Txapelketako azken aurrekolasterketa jokatu zen igandean Motegi zirkuituan, Japoniako Sari Nagusia. Moto 2 mailan Alex Mariñelarena 11. postutik ateratu zen, entrenamenduetan egindako lan bikainari esker. Aurreikuspenak oso onak ziren, baina irteerak lehendabiziko bueltan zapuztu zitzaion ametsa. Irteeran istripu anizkoitz gertatu zen eta irurtzundarrak lurrean bukatu zuen. Minutu batzuk konortetik gabe egon zen Alex eta horregatik Tokioko ospitalera eraman zuten. Irurtzundarrak ezker eskuko eskumuturra hautsita dauka, 4 hausdurekin, eta traumatismo zerbikala.

## Eskumuturra hautsita

Istripua nola gertatzen den ez du gogoratzen Mariñelarenak. Tito Rabat pilotua lurrera joan zen tropelaren erdian. Mariñelarena Scott Reddingen ondoan zihuan, eta Reddingek Rabat saihesteko frenatu zuenean Reak irurtzundarra ukitu zuen eta lurrera joan zen eta badi-rudi murru baten kontra kolpea hartu zuela. Berehala gerturatu zitzaizkion medikuak eta Tokioko ospitalera eraman zuten. "Ez dut gertatutakoa gogoratzen baina gauza hauek gertatzen dira, lasterketaren parte dira, eta ezin da ezer egin" aipatu du irurtzundarrak facebookean.

## Kirofanora

Asteartean, Japoniatik Bartzelonara iristerakoan, Dexeus Klinikako Mir medikuaren kontsultatik pasatu zen. Medikuak ezker eskumuturrean ebakuntza egitea erabaki du, dituen 4 hausturetatik larrienean. Irurtzundarra atzo zen pasatzekoa kirofanotik. Buruko kolpeagatik jaikitzerakoan zorabioak izaten ditu baina hobera egingo dutela esan diote. Gainera, 4 hortz hautsi zitzaizkion. Hala ere, animatua dago pilotua, eta lehenbailehen osatzea espero du. Munduko Abiadura Txapelketako azken proba azaroaren 10ean jokatu da, Valentzian, eta bertan egon nahi du.



Alex Mariñelarenak eskumuturra hautsita du eta kirofanotik pasa da. FACEBOOK

## Areto futbola

## Hasi da Futsal Sakana Txapelketa

1. jardunaldiako emaitzak:

Iturmendi 4 - Bil Toki 5  
Auzomotojorik 6 - Etxarriko gaztetxe 4  
Arbizu K.T. 10 - Bunker 3  
Atsedena: Racing San Migel

Sakanan areto futbola bulkatzeko asmoz, Irurtzungo Xota areto futbol klubari lotutako Leandro Fernandez jokalarari ohi eta lehen mailako Lacturale Gurpea Orbina emakumeen taldeko entrenatzaileak, Futsal Sakana 2013-2014 areto futbol txapelketa antolatu du, hainbat entitatekin laguntzarekin. 7 taldek eman dute izena eta asteburuan lehendabiziko jardunaldia jokatu zen Uharteko Arakilen.

[www.futsalsakana.es](http://www.futsalsakana.es)

Txapelketako informazio guztia. Facebook eta twitter sare sozialetan baita ere. Harremanetarako: Leandro (670 595 098 telefonoa) edo [info@futsalsakana.es](mailto:info@futsalsakana.es). Talderen batek oraindik ere txapelketan parte hartu nahiko balu, dei dezala.

## 2. jardunaldia

Larunbatean, Uharteko Arakilen

11:00etan: Etxarriko gaztetxe - Racing San Migel

12:00etan: Bunker - Auzomotojorik

13:00etan: Bil Toki - Arbizu K.T.  
Atsedena: Iturmendi



OHOREZKO MAILA. 8. JARDUNALDIA: MANACOR 2 - MAGNA XOTA 4

## Magnaren garaipen inportantea Palman

Magna Nafarroa Xotak garaipen inportantea lortu zuen ostiralean Mallorcako Palman. Gauzak ez ziren ongi hasi Irurtzungo taldearendako, Manacor 2-0 aurreratu baitzen. Baina 2. zatian Imanol Arregiren mutilek egoerari buelta ematen jakin zuten eta sei minutuko tartean 4 golsartzea lortu zuten, 2-4 irabaziz. Eseberri, Rafa Usin (2) eta Jesulito izan ziren golegileak.

"Garaipen hau justua izan da eta oso inportantea guretako. Par-

tida serioa egin dugu eta egoerari buelta ematen jakin dugu" adierazi zuen partida bukaeran Imanol Arregi entrenatzaileak.

## Liderraren kontra

Inter Movistar da Ohorezko Mailako liderra, 19 punturekin. Magna Nafarroa Xota 7.a da (12 puntu). Hain zuzen ere Magna Xotak Inter Movistar lider ahaltzua hartuko du ostiralean, azaroaren 1ean, Anaitasuna pabilioian, 20:30ean.

## Dani Saldise selektziora

Espainiako Areto Futboleko 18 urtez azpiko selektzioak Magna Xotako Dani Saldise jokalaririk irurtzundarra konbokatuko du azaroaren 3tik 7ra Las Rozas Futbol Hirian egingo diren entrenamenduetarako.



**PIKUROCK**  
XIL GAZTE AILALDIA

**HAMMLET**

**DEF CON DOS**

**GATIBU**

**LINTON TAUN**

**TXIMELETA**

**KARPAN DJ BULL DJ JO TA TXO**

IRURTZUN 2013 AZAROAK 2 LARUNBATA 20.30ETAN SARRERAK 15€AURRETIK / 20€BERTAN  
SARRERAK IRURTZUN: PIKUXAR ETA MARTXUETA - ETXARRI: LEKUONA - ALTSASU: LURRAZPI - LEITZA: GAZTAÑAGA - IRUÑA: MESON - TXANTREA: AKELARRE  
AUTOBUSAK SAKANAN JAIBUS - LEITZA 21.00 > 06.00 - IRUÑA (MESON) 20.00 > 05.00 - 21.00 > 06.00 - 22.00 > 07.00

[WWW.PIKUROCK.COM](http://WWW.PIKUROCK.COM)

aht desobeditu PIKUXAR GARA berria GURKOTZINE GARA euskalerriarria

# Kalean da Etxepare Sariko liburua

**M**aite Mutuberría ilustratzaileak eta Leire Bilbao idazleak ondutako *Gerrak ez du ize-nik* liburua argitaratu berri du Pamiela etxeak. Sei urtetik gorako hurrei zuzendutako albuma da. 1937ko martxoan Durangon abiatzen da istorioa, Mirentxu protagonista duena.

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, Nafarroako beste hainbatekin batera, antolatutako VII. Etxepare sariketa-

ko fruitua da liburua. Lehiaketako epaimahaiak adierazi zenez: “egileek ederki uztartu dituzte hitza eta irudia, sentimenak eta gertaerak, errealitatea eta fantasia, gerra ororen ezaugarriak agerira ateraez: gosea, beldurra, tristura... Eta argazki errealez eta irudi marraztuez osaturiko planoenez baliatu dira, hitzari arnasa eman eta kontrapuntu egiteko, biziraupenerako dei ozen bat osatuz, armoniaz beteriko album ilustratu honetan”.



## Arretxe Getafen



**G**etafe negro, festival de novela policiaca de Madrid jaialdiaren VI. edizioan izan da Jon Arretxe idazlea *612 euro* eleberria aurkezten eta aleak sinatzen. Gainera, Asier Muniategi moderatzaile zela, Jose Javier Abasolorekin eta Felix Modroñorekin batera Arresek euskal nobela beltzari buruzko mahai inguruan parte hartu zuen.



## Jakin-mina bidai txarteltzat hartuta

**Domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean**

**T**eatro Paraisok Belgikako Guimbarde Antzokiarekin batera sortutako ikuskizuna 3 eta 6 urte bitarteko umeei eta familiei zuzenduta dago. Igande-

an helduko da Altsasura. *Kri kra kro* ikuskizunak unibertso delikatu bat deskribatzen du; hartan bizitza irudien edertasunaren eta aktoreen jokoen kalitatearen bidez adierazten den.

Taula gainean bi pertsonaia izanen dira. Irudiz eta soinuez

beteko den eremu ezezagun batekin egiten dute bidaia, umeen pareko jakin-minarekin. Azken batean, txikienei mundua aztertzeko eta gozatzeko dela adieraziko zaie, ez bakarrik ikusteko. Belgikan, Frantzia, Italia eta Irlandan ikusi dute ikuskizuna.

# Txuspo, erreenkarnazioaz

Iruñeko Gotorlekuko Arma Aretoak Txuspo Poyoren *Reencarnación: en una sola palabra* ikus-entzun esperimantazio-muntaia hartu du. Azaroaren 17ra arte dago ikusgai, asteartetik ostirale-ra 18:30etik 21:00etara, larunbatean 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 21:00etara eta igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Txuspo Poyo (1963, Altsasu) artista altsasuarraren lana gustuko dutenek edo artista altsasuarra deskubritu nahi dutenek aukera aparta dute, gertu, oso gertu baitago ikusgai bere azkeneko lana. *Reencarnación: en una sola palabra* izenburupean artista altsasuarrak 1993 eta 2013 urteen artean egindako hainbat proiektu biltzen ditu lanak. Zinean, bideoan eta animazioan egindako hainbat proiektuen seriea da lana, ikus-entzun esperimantazio-muntaia, hain zuzen. Txuspo Poyoren hitze-

tan “muntaia hainbat pantailaren monolito handi baten antzera” antolatuta dago, ikusentzunezkoaren esperimantazioa egiteko narrazio eta mekanismo multzoa konfiguratzeko dutenak.

### Poyoren lanak biltzen dituen muntaia

Instalazio hau hain justu erakusketa honetarako diseinatu du Txuspo Poyok. Poyoren lanen irudiz, sekuentziaz eta narrazio fragmentatuz osatuta dago instalazioa. Horietako lan bat *Cartoons* da, mendebaldean haurren hezkuntzako parte izan diren marrazki bizidunen inguruko dokumentala. *Horrorismo* lana da beste bat, Metro Goldwyn Mayerreko lehoiaren orro famatua *The End* batean funditzen duen proiektorea. *Monkey Honky Town* proiektuaren sekuentziaren batzuk ere azaltzen dira. Bertan, hildako natur elementuak



irudikatzen ditu, hezurak, banderak edo pistolak, zientzia fikzioko

antzerki koreografiaren simulazioa bailitza.

Beste lan bat *Delay Glass* da, 3Dko animazioa. Animazio honen bidez Poyok Marcel Duchampen *Gran Vidrio* lanean sarbidea egiten du, hainbat elementuren mugimendu onanista eta errotatiboaren simulazio baten bidez. *Cruzan-do vias: si ves algo, di algo* proiektuaren elementuak ere ikusgai dira, elkarbizitzaren eta kontrolaren gaiak lantzen dituen proiektua. Altsasuko Usolarrainen kokatu zuen *La casa arbol*-eko irudiak ere daude ikusgai. Bertan Natur espazioekin interakzioa egiten duten praktika artistikoak ikertzen ditu Txuspok. Eta *U.N. (Inverse)* estrategia artistikoan New Yorkeko Nazio Batuen erakunde goitza osatzen duen arka eta monolitoaren eraikuntzaren inguruko interpretazio, narrazio eta fikzio gaiez hausnarketa egiten du.

Aipatu lan guztien pasarte, sekuentzia eta irudi ezberdinak eskaintzen dizkigu *Reencarnación: en una sola palabra* muntaia. Eta merezi du Iruñeko Gotorlekutik buelta ematea, erakusketa bitxiaz gozatzeko.

# Pikurock, zazpiko ederra

Larunbatean, 20:30etik aurrera  
Irurtzango kiroldegian: Hamlet, Def  
Con Dos, Gatibu, Lin Ton Taun,  
Tximeleta, DJ Bull eta DJ Jo ta txo

Sakanako musika jaialdi erraldoiak, Pikurock-ek, dozena bat urte beteko ditu larunbatean. Musika jaialdi nagusien panoraman izena lortu duen hitzordua da Irurtzangoa, talde entzutetsuak entzuteko aukera emanen duena. Rock doinuaren ondoren, Tximeletak, DJ Bullek eta DJ Jo ta Txok jaia ordu txiki-tara arte luzatuko dute.



## Jaibusa

Pikurocketxerabuelatunahi dutenek Jaibusa 3:00etan, 5:00etan eta 7:00etan hartzeko aukera izanen dute Irurtzunen.

## Sarrerak

Aurretik 15 euro (Irurtzunen Pikuxarren eta Martxuetan, Etxarrin Leku Onan eta Altsasun Lurrazpin). Aldeazurretik sarre-  
rak erreserbatzeko Laboral Kutxako Pikurock-en kontuan (3035 0120 91 1200 008401) dirua (15 euro) sartu beharko da izen-abizenak eta nortasun agiria gehituz. Leihatilan: 20 euro.

## Taldeak



Hamlet-ek bere Insomnio tourraren barruan geldialdia egingen du Irurtzunen. *Amnesia* diskoa, haien ibilbideko hamargarrena, da Irurtzunen aletuko dutena, bes-telakoekin batera. Metal doinu alternatiboak maite dituztenen dako eskaintza. Madrildarrak azar-  
an disko berriaren prestaketekin hasiko dira.

Aski ezagunakere Def Con Dos taldekoak. Hiru ahotseko rapeoa, metal gitarrak eta hip hop oinarriak dira taldearen musikaren ardatza. Taldeak aurtien kaleratu duen estudioko 9. diskoa aurkeztuko du Irurtzunen: *España es idiota*. 1998ko otsailaren 14an Larrazpin jotzekoak ziren eta ezin izan zen. Larunbatean bai.



Bizkaitik rock doinuak ekarriko ditu Gatibuk. Euskal talde entzutetsuetako bat da eta apenas urte bat duen *Zazpi kantoietan* diskoarekin etorriko da Irurtzuner. Alaitasuna eszenatokitik zabalduko da haiekin.

Talde handi baten itzulera bat baino gehiago ekarri du urteak eta haietako bat da Lin Ton Taun.

90eko hamarkadako euskal talde arrakastatsuenetako bat izan zen. Lau disko utzi ondoren 2000 urte inguruan utzi zioten emanaldiak eskaintzeari. Taldekideek ez dute musika sekula baztertu, eta garagarzaroan oholza gainera bueltatu ziren. Haien ibilbideari errepa-soa egingen diote zestoarrek. Irurtzunen egonak dira, 1994an, Nahi ta Nahiezekin jotzen zen orduan.



Irurtzango musika jaialdi bakarra galdu du Tximeleta taldeak. Haren doinuekin gaupasa luzatuko da. Bestalde, kanpoko aldeko karpan ariko diren DJ Bull eta DJ Jo ta Txo aski ezagunak dira Irurtzunen.



# Moskuko haur kantariak Etxarrin

Bihar, 19:00etan Etxarri Aranazko elizan

Tolosako nazioarteko abesbatzen txapelketaren abaroen sortutakoa da Nafarroako Nazioarteko Ziklo Korala. Nafarroako Abesbatzen Federazioak eta Etxarri Aranazko Udalak, beste behin, bat egin dute aipatu zikloko emanaldi bat Etxarrira ekartzeko. Aurtien 32 neskek eta lau mutilek osatzen duten Vesnianka haur abesbatza izanen da Etxarrin

kantatuko duena. Ljubov Aldakova da zuzendaria.

Abesbatza 1961ean sortu zen, Vesniankako Haurren Abesbatza Eskola Nazionala izenarekin. Gaur egun eskolak duen kontzertu-abiesbatza da. Urte hauetan guztietan, arrakasta eta ospe handiarekin, mundu osoko jaialdi eta lehiaketetan parte hartu izan du: 2003an Dubrovniken (Croacia); Austrian eta Alemanian 2003, 2004, 2006 eta 2009. urteetan; 2005ean Britainia Handian eta

2010-2011 ikasturtean, Bielorrusia, Ukraina eta Moldavian ibili ziren eskola magistralak eta kontzertuak eskainiaz.

Bidean ere sariak eskuratu dituzte: 2006an Toursko (Francia) 1. saria, 2012an, Hajnówkako (Polonia) Musika Ortodoxoko Nazioarteko Jaialdian, 1. saria, udazkenean, Tonen 2000ko (Holanda) lehiaketan 3 urrezko hiru domina (sakratua, sekularra eta herri musika) baita sari nagusia ere.



**PPSOE,**  
**ETB**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**

Berria erosi taldea

**NEREA**  
ILEAPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA.  
Ermifeta Kalea 4. ZBK. (Atzekaidea)  
LAKUNTZA. TFN:948 576 331

**KRI KRA KRO**  
TEATRO PARAISO  
Gazteriaren arteko antzerki sari nazionala, 2012  
& TEATRO DE LA GUIMBARDE  
(Belgika)

AZAROAK 3, IGANDEA · 17:00 FAMILIARTEKO ANTZERKIA

PHILIP SEYMOUR HOFFMAN CHRISTOPHER WALKEN  
EL ÚLTIMO CONCIERTO  
OSTIRALA IGANDEA  
1 20:10 3 20:10

5€

iortiakultura.com

**G** asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 18%	euria: 85%	euria: 63%	euria: 89%	euria: 98%	euria: 50%	euria: 20%
Min: 4 Max: 18	Min: 11 Max: 16	Min: 8 Max: 11	Min: 7 Max: 12	Min: 9 Max: 15	Min: 9 Max: 17	Min: 8 Max: 17

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	20.9	4.8	13.7
Altsasu	20	5	7.2
Aralar	14.7	1.7	14.1
Urbasa	17	3	17

: ilargiaren aldia>>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
3	10	17	25

**Acrylcolor SISTEMA BERRIA** **KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE** **KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**

**EGOKI** VENTANAS PVC LEIHOAK Tel: 948 563 253 Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

**Urriko bazkide sarituak**

**Belen Razkin Arregi** (Lakuntza)

**Elena Garcia Cortes** (Iruñea)

**M<sup>a</sup> Carmen Maiza Flores** (Lakuntza)

**Patxi Xabier Lizarraga Etxeberria** (Dorrao)

**AZAROKO SARIAK:**

1- KUKUXUMUXU MAINDIRE LOTE BAT+2 SARRERA EKAINBERRI + XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA	TEKO 2 SARRERA
2- PIRRI TX ETA PORRO TX SUDADERA + LACTURALE ZENTRORAKO BI SARRERA + XOTA IKUS-	3- SUKALDEKO LACTURALE ZAPIA + LACTURALE ZENTRORAKO BI SARRERA + XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA
	4- LIBURU LOTEA + LACTURALE ZENTRORAKO BI SARRERA + XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA

# >> 11 galdera

**Sonia, Susana, Bihotz, Mireia, Oskar eta Asier**

**Etxarriko egutegiko egileak**

Testua: Eneida Carreño eta Maider Betelu



Elkarrizketa osorik: [www.guaixe.net-en](http://www.guaixe.net-en).

*Entzun elkarrizketa!*  
**beleixe** 11.000etan

## 1. 2014rako egutegi berezia kaleratu duzue Etxarriko Preso eta lheslarien Lagunek. Etxarriko talde ezberdinetako kideak agertzen dira. Zergatik biluzik?

Euskal preso eta errepresaliatuen egoera eta baldintza gogorrrak salatu nahi genituen, eta bestetik, ahalik eta dirugehienajasonahigenuen preso enenitartekoei laguntza emateko. Sakabanaketaren ondorioz senideek milaka kilometro egin behar dituzte, horrek sortzen duen gastu eta arriskuarekin eta, bestetik, preso eneskubideak etengabe zapaltzen dituzte. Horregatik sortu zen egutegian biluzik ateratzearen ideia, preso en egoera larriaren aurrean biluzik gaudelako.

## 2. Zergatik halako egutegia?

Beste arlo batzuetan egin izan dira halako egutegiak, eta pentsatu genuen: *zergatik guk ez?* Etxarriko 12 talde behar genituen eta jendea ukitzen hasi ginen. Ongi hartu zuten ideia, berdin gazteek zein helduek. Gu ere harrituta gelditu ginen. Lantaldean seiak aritugara. Bihotz eta Mireia argazkiak egiten, Asier argazkien tratamendua egiten, Oskarrek bideoa, prozesuaren making offa... Profesionalak dira eta halako egutegirik ez genuke egingo beraiek gabe.

## 3. Photoshopa asko erabili duzue?

(Kar kar) Bularretakoen eta kuleroren tirak... halako gauzak kendu ditugu, baina agertzen diren gorputzak halakoak dira. Photoshopa lan teknikoak egitea da: argazkiak enfokatu, kontrastatu...

## 4. Egutegi honen atzean lan handia dago.

Bai. Argazki bakoitza non egin

pentsatzea, pertsonak nola kokolatu, argazkian agertu beharrekoak pentsatzea eta gero argazki sesioa bera. Ez dago argazki errazik, beti dago konplikazioaren bat. 9 pertsona argazki batean atera behar dira, gainera biluzik... gauza asko daude kontuan hartzeko. Sesio luzeak izan dira.

## 5. Karrikestuko sukaldaritzako ikastaroko sukaldariak, palistak, emakumeen batzordekoak...

Karrikestun sukaldatzen jarri genituen. Sukalde txikian 7 pertsona, argia falta zen... Argazki politena izanzen bukaeran txerrikume hori jan genuelako! (kar kar). Palistena lhabarko frontoian atera genuen. Oso polita da. Eta emakumeen batzordekoa oso fina, oso artistikoa.

## 6. Euskal Herrian Euskarazekoak espaloian, AHTren kontrakoak trenbidean eta Gazte Asanbladakoak gaztetxean.

EHE-ekoekin igerilekuetako bidean egiten ginen. Automordoa pasatzen zen... jendea harrituta! AHTren kontrako argazkiak indar asko dauka. Trenbidean daude eta jakina, tarta agertu behar zen. Eta Gazte Asanbladakoekin ideia zen euren anagramarekin jokatzeko eta hortik deabruaren ideia. Antortza eta suarekin jokatu nahi genuen, eta ez zen erraza izan.

## 7. Musikariak eta Sasoiakokoak errepidean eta joaldunekin Egilatzeko trikuharrira.

Musikariena lehenengo argazkia izan zen. Inongo lotsarik gabe, dena erakusteko prest zeuden. Errepide erdian jarri genituen, musika tresnekin. Kotxeak gelditzen ziren eta esaten ziguten: *Zer da, disko bate-*

*rako argazkia?* Egilatzeko trikuharrira polita irudituz itzaila gurea talde handia zenez... Han geundela jubilatuen autobus bat agertu zen (kar kar). Eta Sasoiako kideekin oso gustura egon ginen. Konforme zeuden guztiarekin. Halako gizon helduek halako jarrera bikaina izatea ez genuen espero.

## 8. Preso eta lheslarien Lagunek taldea, senitartekoak eta Etxarri futbol taldeko jokalariek.

Gure argazkiak indar handia du. Sokaren ideia... argazki oso espre-siboa da. Futbolariak aldagelan daude. Txuri beltza den argazki bakarra da eta indar berezia ematen dio horrek. Elegantzia dauka. Eta preso en senitartekoen argazkiarekin goxotasuna islatu nahi genuen. Iluntzeko momentuan kandelak jarri genituen.

## 9. Zein harrera izan du egutegiak?

Harrera ona. Argazkiak onak direla entzuten da. Herriko 12 talde dira, 70 etxarriar baino gehiago, eta denek ikusi nahi dute.

## 10. Egutegiak mezua ere badu.

Talde guztiak preso eta errefuxiatuen aldeko egutegia egiteko prest azaldu ziren, baina, aldi berean, talde bakoitzak ere adierazi nahi du biluzik sentitzen dela bere arloan: AHT, Euskal Herrian Euskaraz, emakumeak, murrizketak... Luxu bat izan da egutegia egitea.

## 11. Non dago salgai?

Etxarriko tabernetan eta liburu dendatan (10 euro). Eskerrak eman nahi dizkiegu egutegian parte hartu duten talde guztiei. Egutegia ahalik eta jende gehienak erostea nahiko genuke; lagundu dezatela.

**Eguberriko postal pertsonalizatuak**

*Goizeko euri artean...*

*eska ezazu zure logoarekin!*

**Orri bakarrek**  
50 ale 55 €  
100 ale 65 €  
150 ale 75 €

**Zorionak eta urte berri on!**

**Diptikoak**  
50 ale 77 €  
100 ale 113 €  
150 ale 142 €

Hainbat diseinu aukeran. Eskatu aurrekontua.  
948 564 275 [argi@guaixe.net](mailto:argi@guaixe.net)  
[guaixekomunikazioa.blogspot.com/es/](http://guaixekomunikazioa.blogspot.com/es/)